<b>Ressources propres, partenariat sur projets, mécénat et autres subventions (hors fonds dédiés)</b>	<b>153 969 €</b>	<b>163 002 €</b>
<b>Cotisations :</b>		
Communes SISCB	144 200 €	144 200 €
Associations membres de l'Institut culturel basque	6 350 €	4 670 €
	<b>150 550 €</b>	<b>148 870 €</b>
Transfert de charges (remboursement frais de formation et autres prestations)	<b>1 715 €</b>	<b>7 836 €</b>
<b>TOTAL PRODUIT D'EXPLOITATION</b>	<b>884 234 €</b>	<b>897 708 €</b>
<b>Autres achats et charges externes</b>		
Interventions des artistes sur projets / Collecte patrimoine orale	89 934 €	101 481 €
Pôle ressource numérique - eke.eus et transmedia danse basque - projets transfrontaliers	17 644 €	40 017 €
Sous-Traitance : traductions	3 609 €	297 €
Autre sous-traitance (projet européen KILT)	3 327 €	457 €
Formations Instep Aquitaine - SPE 64 : formation pour associations et artistes	4 700 €	4 700 €
Transports (transport pour expositions et frais de garage)	2 479 €	1 488 €
Achats petit matériel et fournitures administratives	2 888 €	6 735 €
Locations	762 €	385 €
Locations immobilières	6 784 €	6 800 €
Entretien locaux	7 000 €	7 120 €
Maintenance	5 051 €	5 114 €
Assurances	5 767 €	5 171 €
Documentation	3 106 €	5 864 €
Honoraires CAC, fiscal, expert comptable et social	10 561 €	10 250 €
Honoraires Groupement d'employeur	4 047 €	2 678 €
Honoraires pour formation et frais formation des salariés	1 499 €	3 122 €
Communication - Publicité (fonctionnement et projets)	2 500 €	1 204 €
Cadeaux - Prix	820 €	858 €
Prix (Projet "Irudimena")	1 343 €	- €
Communication et bulletins	12 036 €	2 451 €
Gazole, frais d'autoroute	4 181 €	3 353 €
Frais de missions liés aux projets culturels	22 176 €	22 382 €
Frais de missions-réceptions liés au projet KILT	5 478 €	2 311 €
Frais de missions réceptions liés au projet KIMU	1 310 €	- €
Frais de missions liés au fonctionnement de l'ICB	1 120 €	839 €
Frais d'assemblée générale	1 800 €	233 €
Frais de poste et Telecom	10 020 €	10 512 €
Divers	483 €	387 €
Services bancaires	328 €	569 €
	<b>232 752 €</b>	<b>246 778 €</b>

## Détails du Compte-résultat au 31.12.2015

	2015	2014
<b>Impôts et taxes</b>		
Taxes / Salaires	9 224 €	7 341 €
Part. employeur / formation	5 533 €	5 522 €
Taxes pour retenue à la source	1 193 €	2 188 €
Autres impôts locaux	598 €	- €
	<b>16 548 €</b>	<b>15 051 €</b>
<b>Charges de personnel et charges sociales</b>		
Salaires affectés au secteur 1 / PJ pluriannuels individualisés dont assistance aux associatio	354 525 €	325 156 €
Salaires bruts	241 166 €	218 258 €
Cotisations sociales	113 359 €	106 898 €
Salaires affectés au secteur 2 / Prestations sur projets culturels	24 500 €	27 818 €
Salaires bruts	18 159 €	19 608 €
Cotisations sociales	6 341 €	8 210 €
Salaires affectés au secteur 3 / Assistance à maîtrise d'ouvrage collectivités	35 936 €	54 628 €
Salaires bruts	24 445 €	36 669 €
Cotisations sociales	11 490 €	17 959 €
Indemnités stagiaires	200 €	150 €
Autres indemnités	1 800 €	- €
	<b>416 961 €</b>	<b>407 752 €</b>
<b>Dotations aux amortissements :</b>		
Dotations actions propres (expositions...)	13 172 €	18 807 €
	<b>13 172 €</b>	<b>18 807 €</b>
<b>Autres charges</b>		
Projets conventionnés avec les associations membres	205 350 €	229 890 €
Autres projets conventionnés	17 240 €	13 820 €
Droits d'auteurs et redevance Sacem	2 231 €	8 771 €
	<b>224 821 €</b>	<b>252 481 €</b>
<b>TOTAL CHARGES D'EXPLOITATION</b>	<b>904 254 €</b>	<b>940 869 €</b>
<b>Résultat d'exploitation:</b>	<b>- 20 021 €</b>	<b>- 43 160 €</b>
Produits financiers	1 569 €	2 200 €
Produits divers de gestion courante	- €	- €
Charges financières	422 €	1 533 €
<b>Résultat financier :</b>	<b>1 146 €</b>	<b>667 €</b>
Produits exceptionnels	20 579 €	13 528 €
Quote-part de la subvention "Soka"	2 292 €	- €
Dons	720 €	70 €
	<b>23 591 €</b>	<b>13 598 €</b>
Charges exceptionnelles	2 767 €	1 010 €
<b>Résultat exceptionnel :</b>	<b>20 823 €</b>	<b>12 588 €</b>
<b>Solde intermédiaire</b>	<b>1 949 €</b>	<b>- 29 905 €</b>
Report des ressources non utilisées exercice antérieur	16 251 €	43 939 €
Engagements à réaliser sur ressources affectées	18 690 €	16 251 €
<b>TOTAL PRODUITS</b>	<b>925 644 €</b>	<b>957 445 €</b>
<b>TOTAL CHARGES</b>	<b>926 134 €</b>	<b>959 663 €</b>
<b>Résultat net</b>	<b>- 490 €</b>	<b>- 2 218 €</b>

## BILAN au 31.12.2015

BILAN au 31.12.2015				
ACTIF	Exercice 2015			Exercice préc. au 31.12.2014
	Montant brut	Amort. / Prov	Montant net	
<b>ACTIF IMMOBILISE</b>				
Immobilisations incorporelles	12 330 €	11 736 €	594 €	1 236 €
Autres immobilisations corporelles	357 144 €	288 655 €	68 489 €	10 247 €
<b>Total de l'Actif immobilisé</b>	<b>369 474 €</b>	<b>300 391 €</b>	<b>69 083 €</b>	<b>11 483 €</b>
<b>ACTIF CIRCULANT</b>				
Autres créances	120 106 €		120 106 €	80 938 €
Valeurs mobilières de placement	7 788 €		7 788 €	7 788 €
Disponibilités	197 048 €		197 048 €	381 751 €
Charges constatées d'avance	3 562 €		3 562 €	3 941 €
<b>Total Actif circulant</b>	<b>328 504 €</b>		<b>328 504 €</b>	<b>474 418 €</b>
<b>TOTAL DE L'ACTIF</b>	<b>697 978 €</b>	<b>300 391 €</b>	<b>397 587 €</b>	<b>485 902 €</b>
PASSIF	Exercice 2015		Exercice 2014	
<b>CAPITAUX PROPRES</b>				
Fonds associatif	-	1 239 €		979 €
Subvention équipement		152 449 €		152 449 €
Réserve de trésorerie		49 393 €		49 393 €
Résultat de gestion (perte)	-	490 €	-	2 218 €
Subvention d'équipement		30 000 €		- €
Subventions inscrites au CR	-	2 292 €		- €
Fonds dédiés		18 690 €		16 251 €
<b>Total fonds propres</b>		<b>246 512 €</b>		<b>216 855 €</b>
<b>DETTES</b>				
Dettes fournisseurs et comptes rattachés		24 570 €		89 746 €
Dettes sociales		50 998 €		76 495 €
Etat à payer		9 197 €		10 345 €
Autres dettes		61 310 €		92 460 €
<b>Total dettes</b>		<b>146 075 €</b>		<b>269 047 €</b>
<b>PRODUITS CONSTATES D'AVANCE</b>		<b>5 000 €</b>		<b>- €</b>
<b>TOTAL PASSIF</b>		<b>397 587 €</b>		<b>485 902 €</b>

# ANNEXE

Au bilan avant répartition de l'exercice clos le 31.12.2015 dont le total est de 397 587 €.

Au compte de résultat de l'exercice dont le total des produits d'exploitation est de 884 234 € et dégagant une insuffisance de 490 €.

## REGLES ET METHODES COMPTABLES

Les conventions générales comptables ont été appliquées conformément aux hypothèses de base :

- continuité des activités,
- permanence des méthodes,
- indépendance des exercices.

La méthode de base retenue pour l'évaluation des éléments inscrits en comptabilité est la méthode des coûts historiques.

<b>NOTE SUR LE BILAN</b>
--------------------------

## Autres créances

Elles sont constituées par la contribution des partenaires de l'Institut, contributions non encore versées au 31.12.2015 ainsi que les produits à recevoir, à savoir :

• Subvention du Conseil régional d'Aquitaine	55 800,00 €
• Subvention Département 64	15 000,00 €
• Subvention d'équipement (Exposition « Soka ») – 50 %	15 000,00 €
• Participation financière Mediasal (exposition « Soka »)	8 000,00 €
• Participation financière Donostia 2016 (pj « Kimu)	5 000,00 €
• Participation financière Vitoria Eugenia (pj « Kimu)	10 000,00 €
• Subvention européenne Kilt – solde	9 527,79 €
• Cycle « Chez les basques » Billetterie à rembourser	588,00 €
• Musique de nuit	699,60 €
• Cotisations à recevoir des associations-membres	440,00 €
• Divers	50,40 €
	-----
<b>Total :</b>	<b>120 105.79 €</b>

### **Disponibilités**

Montant des comptes courants bancaires de trésorerie au 31.12.2015.

### **Subventions d'équipement initial**

Elles ont été accordées pour l'acquisition ou la création de biens dont la charge de renouvellement incombe à l'association. Elles sont considérées comme apport en capital à maintenir durablement au bilan comme faisant partie des fonds propres du fait du caractère non renouvelable de la subvention et du renouvellement du bien par l'association.

### **Fonds de trésorerie (Dotation initiale)**

Ce fonds a été constitué à l'origine de l'Institut culturel basque pour financer le besoin en fonds de roulement de l'Institut culturel basque

### **Subventions d'équipement projet SOKA**

En 2015, a été lancé le projet SOKA

La Diputacion du Guipúzcoa a versé une participation financière forfaitaire de 30 000 €

Cette participation financière constitue une subvention d'équipement affectée à un bien non renouvelable par l'association.

Cette subvention affectée à un bien non renouvelable par l'association a été inscrite à un compte de subvention et sera reprise au compte de résultat au rythme de l'amortissement de ce bien.

### **Fonds dédiés**

Les fonds dédiés sont les rubriques du passif qui enregistrent, à la clôture de l'exercice, la partie des ressources affectées par des tiers financeurs à des projets définis, qui n'a pu être utilisée conformément à l'engagement pris à leur égard.

#### **a) Projet 2013 réalisé en 2015**

Le Conseil d'administration avait validé le projet de réalisation d'une exposition en ligne sur la danse basque (4 500 €) du projet culturel 2013 de l'Institut culturel basque qui a été réalisé en 2015.

#### **Récapitulatif : Au 31/12/2015 les Fonds dédiés s'élèvent à :**

Projet Kilt – Subvention Européenne : .....	11 751,17 €
Projet de réalisation d'exposition en ligne : .....	4 500,00 €
<b>Total : .....</b>	<b>16 251,17 €</b>

#### **b) Projet « Kimu » réalisés budgétés sur les exercices 2015 et 2016**

« Kimu » est un programme de formation en arts scéniques destinés au jeune public. Il est co-financé par Donostia-Saint Sébastien 2016, Donostia Kultura et l'Institut Culturel Basque en direction de quatre personnes.

A l'initiative de l'Institut Culturel basque, Saint Sébastien 2016, Capitale européenne de la culture, Donostia Kultura et l'Institut Culture Basque mettent en place le projet « Kimu », appel à projet visant à sélectionner quatre artistes du Pays Basque nord (Iparralde) et sud (Hegoalde) qui bénéficient d'une formation adaptée dans le domaine des arts scéniques destinés à l'enfance, la jeunesse et l'adolescence.

L'objectif est d'accompagner sur 24 mois des acteurs des arts de la scène à travers la proposition d'un parcours adapté de formation composé de visionnages de spectacles dans des festivals européens et de workshops avec des professionnels du secteur.

Date du déroulement du projet : septembre 2015 à septembre 2017.

Engagement financier des structures pour l'exercice 2015 :

• Institut culturel basque :	10 000 €
• Donostia-Saint Sébastien 2016 :	5 000 €
• Donostia kultura : 2016 :	5 000 €
	-----
Total engagement financier projet « Kimu » :	20 000 €

Au 31.12.2015, il a été engagé un coût de 1 310 € sur le projet total.

A cette même date, il a été pratiqué une affectation du **solde non utilisé en fonds dédiés Kimu** pour : 20 000 € = 1 310 € = **18 390 €**

### Actif Immobilisé

<u>Immobilisations</u>	<b>01/01/2015</b>	<b>Augmentat°</b>	<b>Diminut°</b>	<b>31/12/2015</b>
Immobilisat° Incorporelles	12 330			12 330
Installat° Aménagements	72 501	1 141		73 642
Matériel de Transports	18 000			18 000
Autres Immobilisat° Corporelles	346 749	69 630	150 877	265 502
<b>Actif Immobilisé</b>	<b>449 580</b>	<b>70 771</b>	<b>150 877</b>	<b>369 474</b>

<u>Amortissements</u>	<b>01/01/2015</b>	<b>Augmentat°</b>	<b>Diminut°</b>	<b>31/12/2015</b>
Immobilisat° Incorporelles	11 095	642		11 737
Installat° Aménagements	72 501	99		72 600
Matériel de Transports	17 716	281		17 997
Autres Immobilisat° Corporelles	336 787	12 147	150 877	198 057
<b>Actif Immobilisé</b>	<b>438 099</b>	<b>13 169</b>	<b>150 877</b>	<b>300 391</b>

Les amortissements sont calculés suivant le mode linéaire en fonction de la durée de vie prévue

### Dettes fournisseurs et comptes rattachés à moins d'un an

Le montant s'élève à **24 570 €** et correspond à :

Dettes fournisseurs : .....	10 158 €
Factures à recevoir : .....	14 412 €
<b>Total : .....</b>	<b>24 570 €</b>

### Autres dettes

Ont été comptabilisées notamment les conventions prévues sur le budget 2015, signées en 2015 et qui seront décaissées en 2016 pour un montant de 61 310 €.



### **Charges constatée d'avance**

Les charges constatées d'avance ne sont composées que de charges ordinaires dont la répercussion sur le résultat est reportée à un exercice ultérieur

### **Montant des aides financières accordées aux projets conventionnés**

Le montant des aides financières accordées s'élève à 205 350 € pour les associations et 17 240 € pour les structures autres qu'associatives.

### **Information prévue par la loi 2006-586 du 3 mai 2006**

Cette information n'est pas mentionnée dans la présente annexe car elle conduirait indirectement à donner une rémunération individuelle

### **Engagements de départ en retraite**

La convention collective dont relève l'association prévoit des indemnités de fin de carrière.

La dette actuarielle s'élève à 130 083 €

L'indemnité de départ à la retraite est déterminée en appliquant une méthode tenant compte des salaires projetés de fin de carrière, du taux de rotation du personnel, de l'espérance de vie et d'hypothèses d'actualisation des versements prévisibles.

Les hypothèses actuarielles retenues sont les suivantes :

- Taux d'actualisation : 2 %
- Taux de croissance des salaires : 2%
- Age de départ à la retraite : 62 ans
- Table de taux de mortalité : TG 05
- Méthode retenue : Rétrospective Prorata Temporis

\* \_ \* \_ \* \_ \* \_ \*

# AURKIBIDEA

**Euskal kultur erakundeko barne antolaketa** ..... 3. orrialdea

**Euskal kultur erakundeko ekintzak :**

**1. Kultura politika publikoak lagundu**..... **5. orrialdea**

1.1 Euskal kulturaren tokia aztertu Euskal Herriaren antolaketa instituzional berrian ..... 5. orrialdea

1.2 Herri elkargoak lagundu beren kultura politiken finkatzen ..... 5. orrialdea

1.3 AMO misioak segitu, Pirinio-Atlantikoetako departamenduarentzat..... 6. orrialdea

1.4 Irakurketa publikoa garatu kultura publikoetan..... 6. orrialdea

**2. Euskal kultur erakundearen ondarea saila sendotu**..... **11. orrialdea**

2.1 « Euskal etnopolu » labela lortu..... 11. orrialdea

2.2 Kulturaren inguruko gogoeta guneak sustatu..... 12. orrialdea

2.3 Ahozko ondarearen bilketa eta artxibo soinu-dunen tratamendua jarraitu..... 12. orrialdea

2.4 Ahozko ondarea baloratu (Eleketa) ..... 13. orrialdea

**3. Euskal kulturari sentsibilizatu** ..... **14. orrialdea**

3.1 Informazio iturri Hezkuntza artistiko eta kulturalarentzat. .... 14. orrialdea

3.2 Heziketa artistiko eta kulturalaren eskaintza profesionalizatu..... 14. orrialdea

3.3 Sentsibilizazio ibilbide eta tresnen sorkuntza sostengatu (eskoletan) ..... 14. orrialdea

**4. Eskaintza numerikoa garatu** ..... **16. orrialdea**

4.1 « Soka » erakusketa multimediararen ekoizpena ..... 16. orrialdea

4.2 Euskal kultur erakundearen internet atariaren kudeaketa eta eguneraketa..... 19. orrialdea

**5. Kultura aktoreak eta elkarrekin-kideak sostengatu**.....**23. orrialdea**

5.1 Egitasmo egituratzaileak edo/ta berritzaileak lagundu ..... 23. orrialdea

5.2 Elkarrekin, artisteei zuzendu formakuntzak eta informazio bilkurak ..... 29. orrialdea

5.3 Publikoak eta guneak hedatu..... 30. orrialdea

5.4 Elkarrekin-kideei banatu dirulaguntzak ..... 39. orrialdea



## Euskal kultur erakundeko barne antolaketa

### **BILTZAR NAGUSIA :**

293 kidek osatzen dute : 147 kultura elkartek eta 146 herrik (Euskal kultura sostengatzen duen Sindikataren partaide direnak) eta gainera barne dira ere legezko kideak eta pertsonalitate kalifikatuak.

### **Administrazio kontseilua**

Euskal kultur erakundearen administrazio kontseiluaren osaketa, Mikel Erramouspé-ren lehendakaritzapean :

Instituzioen taldea

#### **Estadoaren ordezkariak :**

- Pierre-André Durand jauna, prefeta
- Patrick Dallennes jauna, suprefeta
- Arnaud Littardi jauna, DRAC-eko zuzendaria

#### **Akitania-Limousin-Poitou-Charentes Eskualdearen ordezkariak :**

- Alice Leiciagueçahar anderea
- François Maitia jauna

#### **Pirinio Atlantikoetako Departamenduko ordezkariak :**

- Max Brisson
- Vincent Bru

#### **Eusko Jaurlaritzako ordezkaria**

- Clara Montero anderea

Herrien taldea

#### **Euskal kultura sostengatzen duen Herriarteko sindikataren ordezkariak :**

- Kati Miranda anderea
- Jean-Claude Iriart jauna

Kultura eragileen taldea

- Pierre-Paul Berzaitz jauna
- Ximun Carrère jauna
- Jean-Baptiste Coyos jauna
- Adélaïde Daraspe anderea
- Juhane Dascon jauna
- Danièle Duhalde anderea
- Mikel Erramouspé jauna
- Christiane Giraud anderea
- Roger Goyhénèche jauna
- Filipe Lesgourgues jauna
- Peio Soulé jauna

## Gomitatuak

- Bernadette Soulé anderea
- Erramun Baxok jauna (hizkuntza politikan aditua)

**Konduetarako komisarioa :** Michel FAGOAGA

## BULEGOA :

Lehendakaria :.....Mikel ERRAMOUSPE  
Lehendakariordea : .....François MAITIA  
Diruzaina : .....Peio SOULE  
Idazkaria : .....Ximun CARRERE

## TALDE PROFESIONALA :

**Zuzendaria :** .....Pantxo ETCHEGOIN

**Kontularitza / Idazkaritza :**.....Maddalen ERROTABEHHERE-DUPUY (% 88-a)

## Sail arduradunak :

### **\* Kultura politika publikoen aholkularitza saila**

Politika publikoen arduradunak ..... Clémence LABROUCHE  
(ama-oporretan 2012ko urriaz geroz)  
Mailys IRIART  
(2012-11-05etik goiti, kontratu mugatuan)

### **\* Arte eszeniko eta arte bisuala sailak**

Egitasmo arduraduna.....Frank SUAREZ

### **\* Irakurketa publiko eta arartekolaritza saila**

Karguduna : .....Maia ETCHANDY

### **\* Etnologia & kultura ondare inmateriala saila**

Etnologoa : .....Terexa LEKUMBERRI  
Ahozko ondarearen artxibatze karguduna :..... Maite DELIART

### **\* Argibide eta multimedia saila**

Informazio zaintzaren  
eta multimedia egitasmoen arduraduna: .....Jakes LARRE  
eke.eus webgunearen animazio eragilea : ..... Frederik BERRUET

# 1 | Kultura politika publikoak lagundu

NOTRe legea adoptatua izan eta gero, instituzioek mugimendu sakon bat bizitzen dute. Testuinguru hortan, ipar Euskal Herria bere antolaketa berria aztertzen ari da eta eztabaida sakonak irekiak dira. Euskal Kultur Erakundeak bere ekarpena egin nahi izan du, euskal kulturak izan beharko lukeen tokia definituz eta defendituz, egiazko kultura politika publiko baten gaia izan dadin.

Bestalde, EKEk bere gaitasunak eskaintzen dizkie orain arteko herri elkargoei, beti Pirinio Atlantikoetako Departamenduarekin lan eginez, instituzio guzietan euskal kultura lagun dezaten osagarritasun batean.

EKEk irakurketa publikoaren alorrean eramaten duen lana segitu du, euskal ondarea kontutan hartua izan dadin mediazio ekintzetan.

Azkenik, instituzioak eta lurraldeko kolektibitateak aholkatu ditu, haien kultura programazioa definitzeko orduan.

## 1.1 | Euskal kulturaren tokia aztertu ipar Euskal Herriaren antolaketa instituzional berrian

Euskal kultura sostengatzen duen herriarteko sindikatarekin batera, EKEk ikerketa bat eraman du, ipar Euskal Herriko antolaketa instituzional berrian euskal kulturak izaten ahalko duen tokia aztertzeko.

Lehenik, gaurregun dugun antolaketa kulturalaren historia oroitarazi dugu, gero gaurreguno egituratzearen mugak aztertzeko. Horren ondotik, herri elkargo bakar baten hipotesia hartuz, gure gomendioak aurkeztu ditugu.

EKE herri elkargo bakar baten sortzearen alde agertzen da, euskal kulturaren garapena segurtatzen ahal duen egituratze baten menturan, baldin eta elkargo horrek euskal kulturaren ardura hartzen badu bere eskumenetan :

- euskal kultura bere estatutuetan finkatuz, bere eskumenen artean ;
- euskal kultura politika publikoen gaia bilakaraziz;
- EKEk garatu dituen misioak bere baitan berreskuratuz eta sakonduz, zuzenki kudeatuz.

## 1.2 | Herri elkargoak lagundu beren kultura politiken finkatzen

2015ean, bilkurak egin dira EKE-ren eta herri elkargoen artean, problematika batzuen aztertzeko eta orientazio batzuen definitzeko.

Bestalde, « 2015-2020ko Euskal Herriko lurralde kontratua » kari, Euskal Herriko Garapen Kontseiluak EKeri laguntza geldetu dio, bi herri elkargoren eta lurraldeko bi elkarten arteko lana erretzeko, euskal dantza inguruko proiektu bakar eta orokor baten definitzeko.

## **1.3 | AMO misioak segitu, Pirinio-Atlantikoetako departamenduarentzat**

Partaidetza hitzarmena izenpetua izan da 2015ean, Pirinio Atlantikoetako departamenduarekin, EKeri emana zaion AMO misioa definitzeko, alor horien inguruan :

### **Euskal kulturaren tokia segurtatu Departamenduak eramaten duen politikan, heziketa artistiko eta kulturalaren alorrean (EAC) :**

- Departamenduak EKeren gaitasunak kontutan hartuz, bultzatzen eta garatzen duen PDEAC alorrean ;
- EKEk PDEAC deialdiaren eta “Grandir avec la Culture” dispositiboaren gauzatzea erretuz, informazioa partekatuz;

### **Elkarlana eragile kulturalen sostengatzeko, diren laguntza dispositiboaren osagarritasuna hobetzeko asmoz :**

- Aldaketa instituzionalaren kari, eragile kulturalak laguntzeko dispositiboak aztertu eta osagarritasuna landu
- EKeren laguntzen gida definitu,
- Formakuntzen eskaintzaren osagarritasuna landu
- Departamenduak garatzen duen irakaskuntza artistikoen aldeko politikaren inguruan elkartu, batez ere euskal dantzaren irakaskuntzaren tokia definitzeko

## **1.4 | Irakurketa publikoa garatu kultura publikoetan**

### **1.4.1 BILKETA : Liburuzainak euskal kulturari sensibilizatu eta mediazio eskaintzak eraman publiko zabalarentzat**

Bilketa Baionako Hiriak garatu atari bat da, zerrendatuak izan diren euskal funtsak biltzen dituen. Hortan sartzen dira liburu, aldizkari, eskuizkribu, artxibo, argazki eta ikonografia guztiak, bai eta soinudun eta ikusentzunezko dokumentuak, Euskal Herriari lotuak edo euskaraz direnak. Atari honek egitura ezberdinetan barreatuak diren funtsen bilaketa bat eskaintzen du (liburutegi eta mediatekak, liburutegi unibertsitarioak, dokumentazio zentroak, eta beste funts pribatuak).

Bilketak liburutegi numeriko bat aurkezten du, bildumen aberastasun handia isladatzen duena eta publiko zabalari eskuragarri bilakarazi nahi duena.

Baionako Hiriak eta Mediatekak ondareari lotua den egitasmo hori eraman dute « Contrat Plan Etat-Région (CPER) 2007-2013 » hitzarmenaren barnean. Hainbat ekintza eramanak izan dira: dokumentuen tratamendua, numerizazio kanpainak, hedapen tresna baten garapena, bai eta liburutegien arteko sare baten eraikitzea ere. Sare horrek praktiken eta lan tresnen partekatze bat eskaintzen du, eta osagarritasunean pentsatutako euskal funtsen balorizazio bat proposatzen du ere.

Euskal kultur erakundea, 2010 urtetik egitasmo honi lotua da, bere azken fasean lan egiteko gisan, hots publiko zabalari zuzendu mediazio ekintzak proposatzeko eta profesionalen sareari euskal kulturari lotuak diren sentsibilizazio egunak antolatzeko.

## **Bilketa - Liburuzainak euskal kulturari sentsibilizatu**

### ➤ **2015eko apirilaren 2a, osteguna. Baionako Artxibotegia**

**“Euskal prentsaren historia XIX.mendetik gaur egun arte”** Eneko Bidegain-en eskutik

*Eneko Bidegain idazlea, kazetaria eta kazetaritza erakaslea da Mondragoneko unibertsitatean (Gipuzkoa). Artxibotegiaren bisita gidatua eta eginbeharren aurkezpena.*

### ➤ **2015eko urriaren 8a, osteguna. Baionako Mediateka**

**“Irakur!” zikloaren barnean antolatutako profesionalendako eguna**

#### **XX. mendeko euskal literatura**

Goizean : Topaketa euskarazko literatura alorrean ari diren argitaletxeekin : Maiatz, Susa, Gaumin, Elkar... Mahain-ingurua euskarazko literaturaren gaiaren inguruan (irakurleagoaren guttitasuna, “irakurketa errexa” lehenetsi behar ote da?, ...). Arratsaldean: Ur Apalategiren mintzaldia: « *Euskal literatura XX. eta XXI. mendean : modernitatearen formulak eta gainditzea* »

### ➤ **2015eko azaroaren 26a, osteguna, Donibane Lohizune (Mediateka eta Herriko Etxea)**

**“Euskal zinemaren historia”**

Goizea: Mediatekaren bisita eta DVD/VOD fondoaren aurkezpena

Euskadiko Filmategiaren zuzendari ordea den Ion Lopez-en mintzaldia *“Euskal zinema mugaz gaindi”* gaiaren inguruan.

## **Arratsaldea: Euskal zinema eta mediatekak**

Liburutegi edo mediateketan aurkitzen diren ikus-entzunezko bildumek 3 erabilera mota dituzte: konsulta tokian berean, mailegua eta proiektzio animazio zehatz baten barnean. Legediak, proiektzio hauen araudiak finkatzen ditu : zerbitzu publiko bat eskaintzea den baldintza betetzea eta irabazirik gabeko ekitaldi baten antolaketa. Egiturak hiru erabilpen hauetako eskubideak aintzinetik eskuratu behar ditu. Euskal fondoan kasuan, Hegoaldean ekoiztuak diren film eta dokumentalek ez dute banatzailerik Frantses lurralde mailan (edo biziki bakanetan). Horren ondorioz, ekoizpen hauen banaketa ez komertziala ez da legedia batek arautua. DVD bat denda batean erosten denean, eremu pribaturako edo familiakoa bakarrik erosten dira eskubideak. Ondorioz, liburutegi batek liburutegien legediarekin konforme izan nahi badu (eta beraz konsulta, mailegatze eta proiektziorako eskubideak eduki), kasik ezinezkoa zaiola euskal ekoizpenak bere bilduman proposatzea.

Problematika honen inguruan antolatu da beraz arratsaldea:

- EAEn ekoiztuak diren filmen mailegatze, konsulta eta proiektzioa: eskubideen galdera
- Lurralde batetik bestera eskubideen negoziaketarako pista batzu,
- “Banatu Filmak” ikus entzunezko egituraren ekarpena



Trukatze eta gogoeta arratsalde honek problematika zehazten lagundu gaitu eta beste arazo bat agerian eman du : liburutegiek arazo bera dute Iparraldean ekoiztutako produktuekin (Aldudarrak Bideo, ZTK, Elkar). Eskubideak, eremu pribaturako bakarrik lotuak dira euskarriari. Horrez gain, egitura hauekin lan bat abiatu da: Aldudarrak Bideo egiturak, 2016 urte hasierako, liburutegiei zuzenduko den DVD katalogo bat proposatuko die.

Ondorioz, “Banatu Filmak” egiturak Iparraldeko problematika bereganatu eta Euskal Produktoreen Elkartearekin (EPE-APV) lotura eginen du.

Azkenik oroitarazi behar da gogoeta hori Iparraldeko zinegeletan Euskal filmen banatzeko egitasmoari lotua dela.

### **Bilketa – Mediazioa publiko zabalari begira**

- **Ekainaren 5a, Baionako mediatekan, *Pierra Lhande* pastoralaren aitzin-dasta**  
Pastoralaren inguruko mediazio ekintzen segida: topaketa bi zatitan iragan da: Lehen zatian Patrick Queheille-k (errejenta, dantzaria, dantza erakaslea) pastoralaren ezaugarri nagusiak aurkeztu ditu. Ondotik, Zalgiruri elkarteko kideek, *Pierra Lhande* pastoraleko aitzin-dasta bat eskaini zuten, bai eta egitasmo honen alde sozial eta humanoak luzaz aipatu ere.

Topaketa honen ondotik, publikoa eta parte hartzaileak Zamai ostatuan elkartu ziren trago batentzat.

- **Haurrei zuzendua den pastorala jokoa :**

Biarritzeko *Ludo 64* elkartearen laguntzarekin, pastoralaren unibertsoa deskubritzeko joko kolektibo baten ekoizpena. 6 urtez gorakoentzat, jokalariei beren pastorala propioa eraikitze aukera eskainiko die.

Hiru erabilpen mota pentsatuak izan dira : kolektiboa (jokalaria autonomian ari dira pastorala baten eraikitze modu kolektiboan), lehiakorra (jokalaria autonomian ari dira baina bata besteen kontra), pedagogikoa (erakasle edo animatzaile batek lagundurik, jokalariek haien pastorala eraikiko dute baina historia aztertuz). Liburuxka batek jokoaren araudiak eta pastorala bakoitzaren tramak bilduko ditu.

Biarritzen kokatua den *Ludo 64* elkarteak, jokoen asmatzen eta ekoizpenean berezitu da. Joko honen sortzea beren esku da eta plazaratzea 2016 urte bukaerako gibelatua da.

Haurrekin, proba faseak antolatuak izanen dira ekoizpen fasean sartu aintzin. Ekoizpen mota ezberdinak ere aztertzen ari dira : eskolendako ekoizpen bat, ekoizpen komertziala...

### **1.4.2 BDPArekin antolaturiko profesionalendako egunak**

2011z geroz, Departamenduko Mailegu Liburutegiak (BDPA) eta EKEk bisita profesionalak proposatzen dituzte. Bisitak liburuzainei eta irakurketa sarean direnei zuzenduak dira. Durangoko Azoka, Donostiako Haur liburutegia eta Koldo Mitxelena kulturunea bezalako egiturak bisitatze aukera eskaini zaizkie.

2015erako 2 bisita antolatuak izan dira: Azkuna kultur zentroko mediateka (Alhondiga ohia) eta Durangoko Azokaren 50. edizioa.

### **Bilboko Azkuna Kultur zentroko (Alhondiga ohia) mediatekaren bisita**

2015eko apirilaren 21ean, Azkuna Kultur zentroko mediatekaren bisita antolatua izan da: 2010ean estreinatutako informazio-zentroa da, komunikaziorako eta kultura-truketarako lekua, irakurtzea, ikastea edo ikertzea sustatzeko aisialdirako espazio plurala. 3 estaietan banatua, 4 000m2ko mediateka bat proposatzen du, 50 000 liburuz gorako fondo batekin.

Mediateka, liburutegi berritzailea eta konprometitua da, elkarrekin bizitzeko eta elkar topatzeko espazio plurala, pertsona guzien zerbitzurako. Bertan, era askotako zerbitzu eta jarduera soziokulturalak eskaintzen dira, eta horiek lagungarriak dira garapen pertsonalerako, gizakien arteko harremanak dinamizatzeko eta hiritarren sareak sortzeko, Azkuna Zentroaren izpirituarekin bat etorrita. Mediatekaren arduraduna den Alasne Goikoetxea Martin-ek eta bere lantaldeak, 30 liburuzainak errezibitu ditu eta egitura bisitarazi. Esperientziak eta lan moldeak partekatu ahal izan dituzte eta 2016an, taldea Iparraldeko egituren bisitatzera gomitatzeko asmoa bada.

### **Durangoko Azoka 2015: 50. edizioa**

2011 eta 2012 urteetan Durangoko Azokaren bisita profesionalak antolatuak izan ziren eta azken bi urteetan pausan eman. Liburuzainen eskaera bati erantzuteko, 2015ean ekintza berri da. Abenduaren 7an beraz, hamabost bat liburuzainek azokaren 50. edizioan parte hartu ahal izan dute: topaketak argialetxeekin, azokaren bisita eta haurliteraturaretoa.eus atari berriaren aurkezpenean parte hartzea.

### **1.4.3 Aholkularitza artistikoa euskal kulturaren inguruko ekitaldi programen antolatzeko : Mediateketan.**

#### **Baionako Mediateka**

« Irakur ! Lire en basque »

2012az geroz, EKE, urrian zehar Baionako Mediatekan iragaiten den ekitaldi honen partaidea da. Euskarazko irakurketari dedikatua den denboraldi horrentzat, aholku artistikoak eman ditu aurten ere. Horrez gain, Bilketa egitasmoaren barnean, liburuzaintzat sentsibilizazio egun bat antolatua izan da euskal literaturaren inguruan.

Bilketa – Mediazioa publiko zabalarentzat

(ikus 1.4.1) Ekainaren 5a, ostirala – *Pierra Lhande* pastoralaren deskubritzea

#### **Biarritzeko Mediateka**

Badu orain urte andana bat partaidetza hori abiatua izan dela. 2012az geroz, hitzarmen baten bidez ofizializatu izan da gainera. Programazioaren osatzea partaide ezberdinak biltzen dituen lan talde baten bidez egiten da: Mediatekako Euskara eta Gazte zerbitzuak, Eusko Ikaskuntza, Biarritzeko Hiriaren Euskara Bulegoa, AEK, Irakurketa Kluba. 2016 urtearentzat partaidetza bi hitzordu nagusiren inguruan antolatua izan da: Mediatekaren 10 urteen ospakizuna eta “Soka” erakusketaren aurkezpena Biarritzen irailan.

## Mediatekaren 10 urteak

Mediatekak ekitaldi programa aberatsa proposatu du bere 10. urtebetetze kari. Horren barnean EKEekin partaidetzan, euskal idazle ezagunenetarik bat gomitatu nahi izan dute : Bernardo Atxaga. Urtarrilaren 16an, ostiralarekin, Maiatz argitaletxeko Lucien Etxezaharretak animaturik, idazlearen *Nevadako Egunak* liburu berria deskubritu ahal izan da, bai eta gaur egungo euskal literaturaren egoerari buruzko Atxagaren ikuspundua ere.

## Dantza Izpiak erakusketa irailaren 3tik 25era

« **Soka, euskal dantzaren urratsetan** » multimedia erakusketaren karietara, Euskal kultur erakundeak Gabrielle Duplantier argazkilariari dantzari buruzko argazki batzu egiteko parada eskaini dio. 2014ko urriaren eta 2015eko udaren artean, Euskal Herria zeharkatu du euskal dantzaren eta bereziki ihauteriak, maskaradak eta Besta Berri bezalako ekitaldien inguruko argazki ezberdinen hartzeko. Bakarkako lan horren ondotik, artista honen talendua eta sentsibilitatea agerian uzten duten zuri-beltzeko hogeitamar bat argazki erakutsiak izan dira erakusketa honetan.

Bestalde, bi hitzordu antolatuak izan dira :

- Irailaren 3a, ostegunetz: *Dantza izpiak* erakusketaren estreinaldia, argazkilariarekin
- Irailaren 4a, ostiralez: Patxi Perez eta konpainiaren mutxikoak, dantzari eta dantzazale guzietz irekia. Mediatekaren baratzeetan.

## **Hazparneko Mediateka**

Euskararen Egunaren karietara, EKEk eta mediatekak Daniel Landart-en « *Etxea eta etxeoak* » azken obraren aurkezpen bat antolatu dute abenduaren 3an. Kattalin Sallaberry, Pantxoa Etchegoin eta Pantxoa Carrère-k lagundurik, idazleak etxeari buruzko idatzi bilduma honetako zati antzeztuak proposatu ditu.

## **Hendaiaiko Mediateka**

Joseba Sarrionaindiaren « *Idazlea zeu zara* » obraren inguruko hitzordu bat, Lierni Altuberen marrazki erakusketa irailaren 3tik 26ra (liburuan agertzen diren ilustrazioak) eta Artedrama konpainiaren « *Idazlea zeu zara* » antzeztanaren aurkezpena, irailaren 26an (deneri zuzendua 5 urtetik goiti).

### **1.4.4 Mediateken gida eguneratu**

Eke.eus atarian proposatu kultura baliabideen gidaren eguneratze lanaren segida. Horrez gain, aurten EKEk bere ekarpena egin du BDPak argitaratzen duen ekitaldi kulturalen gidan (2015-2016). BDParen webgunean EKEren erakusketen berri ematen da, eke.eus-eko baliabideen gidaren lotura, bai eta EKEren misio kargudunaren harreman zuzena ere.

## 2 | Euskal kultur erakundearen ondare saila sendotu

### 2.1 | « Euskal etnopolu » labela lortu

Euskal kultur erakundeak hainbat urrats eman ditu 2015ean label horren eskuratzeko. Oroitaraz dezagun, hortarako, baldintza batzu bete behar direla :

- Kultura politika publiko bat ukan eta ikerketa zientifikoari uztartu : bi sail hauek betan eramatea behar beharrezkoa da,
- Tematika indartsu bat landu, honi animazio kultural-zientifikoak eta ikerketak lotuz ; delako tematikak interes aski zabala ukan behar du, etnopolu erreferentzia bat bilaka dadin gai horretan nazio eta nazioarte mailan.
- partaidetzak garatu erakunde zientifikoekin (CNRS, unibertsitate...), kulturekin (museoak besteak beste) eta lurralde elkargoekin.

2015ean EKE-k ondoko urrats hauek eman ditu :

**2.1.1- Ondare sailaren lanean bi ardatz lehenetsi ditu (ahozko ondarearen bilketa/balorazioa eta sorkuntza garaikideari buruzko gogoeta) eta hauei esker etnopoluarenak diren ezaugarriak lortzen hasi da :**

- oroimenaren eta sorkuntzaren laborategi bat bilakatuz emeki-emeki
- partaidetzak xerkatuz sorkuntza/oroimena gai horren inguruan kultura ikerketari lotzeko
- politika kultural eta zientifiko bat aurreikusiz, tokioa mundukoan koka lezakeena.

**2.1.2- Bigarren urratsa izan da bi ardatz horien baloratzea eta elgarri jostea :**

- Eleketa fondo osoaren hedapen numerikoaren baldintzak aztertuz (ikus 2.4.2)
- Hiru tematika definituz bi ardatz horiek lotuko dituztenak eta etnopoluaren marka izanen direnak ( ondarea eta sorkuntza da lehen gai potoloa, hizkuntza eta kultura bigarrena, dokumentuen artxibatze eta sareratze metodoak hirugarrena )
- Ahozko memoriaren biltzeko eta tratatzeko moldea galdezkatuz .

**2.1.3-Azkenik EKE berarekin euskal etnopolu hori bizi araziko duten partaideen bila abiatu da**

Etnopoluak landuko dituen tematikek agertarazten dute partaidetza batzu behar beharrezkoak direla (Bilketa, Euskaltzaindia, IKER-CNRS laborategia, Euskal Museoa, departamenduko artxibategia, Eusko Ikaskuntza, unibertsitateak, ACBA, DRAC). Lau bilkura iragan dira joan den urtean, horietarik bi Akitaniako DRAC-ean, beste bi Baionan aipatu partaide horiekin. Euskal etnopoluaren proiektuak konduan hartua izan behar luke 2016ko azaroan berrikusia izanen den lurralde kontratuan, 2017an ezagupena lortzeko gisan.

Bestalde, EKE harremanetan sartu da Frantzia diren 7 etnopoluetatik hiruekin (Billère-eko INOC, Carcassoneko GARAE eta Mane-ko museo-kontserbatorioa). Lan ohidura batzu badira jadanik EKE, INOC, GARAE eta Vitré-ko CFPCI-ren artean (beste etnopolu bat hau ere), zientifiko berdinak baitabilta batzuen eta besteen aholkularitzan, besteak beste Denis Laborde etnologoa, CNRS laborategi bat sortzekotan dena Baionan eta euskal etnopoluaren dozierra hurbiletik segitzen duena.

## 2.2 | Kulturaren inguruko gogoeta guneak sustatu

Euskal kultur erakundeak gogoeta bat abiatu du 2012an ondare kultural inmaterialari buruz. Helburu honekin eta Denis Laborde etnologoaren laguntzarekin, 2014an sortu diren bost emanaldi artistiko hurbiletik segitu ditu, sorkuntza/ ondarea lotura hori nola gauzatzen den ulertu nahian. Segipen honek bi gogoeta gune antolatzeko estakurua eman du, kultura arloan ari diren eragile eta sortzaileekin, 2015eko urtarrilaren 24an Senperen eta ekainaren 27an Uztaritzen. Hor eztabaidatu diren gaiak hauek ziren besteak beste : sail kulturalak nork eta nola definitu, tradizioa egia ote da, nortasuna denborari begira, sorkuntza parte-hartzailea/ autore sorkuntzaren arteko harremana. Gogoeta horien emaitzak, bai eta karia hortara Denis Labordek egin ekarpen teorikoak ere, EKE-ko webgunean irakur daitezke. Liburu batean agertuko dira 2016an, hau guziaz denen hazkurri izanen delarik eta bereziki EKE-ren baitan 2012tik abiatu gogoetaren pizgarri.

## 2.3 | Ahozko ondarearen bilketa eta artxibo soinudunen tratamendua jarraitu

### 2.3.1 Ahozko memoria bildu eta baloratu (Eleketa programa)

Programa honek bere bidea segitu du 2015ean, Departamenduaren obragintzapean, EKE beti obralari.

29 inkestetarik 4 dantzari buruz eginak izan dira.

Gainerateko 25ek ere aktualitate garaikidea jorratu dute, hala nola iparraldean XX. mendearen bigarren zatian eragin duten mugimenduen historia, izan dadin kultura, erlijio, ekonomia, gizarte ala politika sailetan. Hor aurkitzen da beraz kooperatiben garapena (lekukotasun 1), emazte mugimenduak eta bizi baldintzak (2), talde politikoen sorkuntza eta bilakaera (7), hizkuntza eta literatura arloko gertakariak (2), baita bertsularitzak (7), antzerkiak (1), kantuak eta musikak (4) segitu duten bidea.

### 2.3.2. | Ipar Euskal Herriko ahozko artxiboen balorizazioa

Euskal kultur erakundeak segitzen du Departamenduak numerizatzen dituen artxibo zaharren tratatzen (deskribapena, dokumentazioa, datubase numerikoen sortzea eta osatzea).

Philippe Oyhambururen fondoaren tratamendu lana, 2014ko urtarrilan hasi zena, 2015eko abenduan bukatua izan da. Hots orotara 250 ordu baino gehiago tratatuak.

## 2.4 | Ahozko ondarea baloratu (Eleketa)

### 2.4.1-Eleketa programa baloratu Soka erakusketaren barnean

Dantzari buruz bildu diren 64 lekukotasunen 180 zati agertzen dira “Soka” erakusketaren barnean eta agertuko dira 2016an eke.eus webgunean.

### 2.4.2- Eleketa programa baloratu etnopoloiari begira

EKE-k eskaturik, 2015ean, Code Syntax enpresa “Eleketa” fondoaren balorapen numerikoaren bidegarritasunaren ikertzen hasi da. Honek ekintza-kuadro proposamen tekniko bat egin du (artxiboen datubasearen XML esportazioa Eke-k berak MySQL moduan kudea lezakeen datu base xingleago bat sortzeko, lekukotasun guziak zerbitzari berezi batean aterbetzea, datu basea eta lekukotasunak internet gune berezi batean ematea, datu basea berriz lantzea ikerketa alorrak bereizteko, ikerketa frantsesez eta euskaraz eskuragarri izatea etabar). Kuadro hau eztabaidatua izan da Baionako Artxibotegian, abenduan iragan den bilkura batean. Hauxe dira bilkura hortarik atera diren erabakiak :

- Departamenduko artxibo zerbitzuak lekukotasunen sareratzearen bidegarritasun juridikoa aztertuko du baita ere 19AV inbentarioa definitiboki baieztatuko, 2016an ikerlariei irekia izan dadin ;
- EKE-k dantzari buruzko lekukotasunak sarean emanen ditu ;
- Bilkura tekniko bat iraganen da EKE-ko, Artxiboetako eta AJLSM sozietateko langileen artean aterabide desberdinak aztertzeko eta zenbakietan baloratzeko.

### 2.4.3 Eleketaren eta etnografiaren tokia Baionako Euskal Museoa

Eleketa programaren aberastasun ikaragarria baloratzeko, Euskal kultur erakundeak eta Baionako Euskal Museoa “Eleketa museoan” programa martxan eman dute. Begi bistakoa baita lekukotasun batzuek bizia eta zentzua ematen ahal dietela museoan agertzen diren hainbat objektuei, hitzarmen bat izenpetua izan da EKE eta Euskal Museoaren artean “borna” prototipo baten sortzeko. Prototipo honen bidez, bizpahiru lekukotasun zati entzuten ahalko ziren *in situ* eta ongi neurtzen ahalko zen dispositiboa egokia zenez eta zabal zaitezenez museoaren beste toki batzuetan.

2015ean eraman entseguek erakutsi dute, ez dispositiboa, ez hautatu lekukotasun zatiak ez direla erabilgarriak, bakarrik pantaila bat eta soinu-iturri bat ematen baldin badira.

2015eko apirilean Euskal Museoa “Museoa eta etnografia” gaiari buruz iragan gogoetaldi batean, errana izan da soinu-iturri bat erabili eta baloratu nahi bada, tratamendu berezi bat merezi duela museografiaren aldetik. Bestalde, gogoetaldi hortan hitza hartu duen EKE-ko Terexa Lekumberrik bide berri batzuek proposatu ditu, hala nola lekukotasun garaikideak txertatzea museoari, hauen helburua ez litaikelarik objektuaren kontestualizatzea baizik eta gaurko Euskal Herriarekin perspektiban ematea.

2016an oraindik, gaiak gogoetatzea merezi du, ahozko lekukotasunak zinezko leku bat ukan dezan museoaren barnean, honen beharrei egokitzuz. Erakusketa gelen ibilbidea eta bisitarien nahia konduan hartuz, gai berezi batzuek hautatu eta landuko dira, gaurko errealitateari irekiak izanen diren elgarriketak eginez.

## 3 | Euskal kulturari sentsibilizatu

Euskal kulturaren inguruko sentsibilizazio tailerrak garatzen dituzten eragileen zerrenda egina du EKEk, alor hortan ere bere lurraldeko egiazko baliabide iturri bihurtuz.

Euskal kulturaren ezagutza erreteko, eta publiko berriengana hurbiltzeko, EKEk erabaki du eskaintza sostengatzea, eragile kulturalak baita ere inplikatuak diren instituzioak (zahar etxe, haurzaindegi...) lagunduz, izan dadin ibilbide batzu plantan ezarriz, sentsibilizazio tresnak bultzatuz edo eskolen arteko topaketa kulturalak antolatuz.

### 3.1 | Informazio iturri Hezkuntza artistiko eta kulturalarentzat

- Hezkuntza artistiko eta kulturalen inplikatzeko diren kultura eragileen errepertorioa osatua izan da ;
- Hezkuntza artistiko eta kulturalen inplikatzeko diren eragileen sarearen antolatzea segitua izan da, Hezkunde Nazionala eta Pirinio Atlantikoetako departamenduarekin batera;
- Eragile kulturalen eta hezkuntza artistiko eta kulturalen partaideen (eskolak, lurralde kolektibitateak..) arteko harremanak errextuak izan dira.

### 3.2 | Heziketa artistiko eta kulturalaren eskaintza profesionalizatu

- Departamenduak antolatu EAC egunean parte hartzea;
- Euskal dantzen eguna proposatua izan zaie irakasleei, Canope, Ikas, IDB, Maurice Ravel kontserbatorioa, Hezkunde nazionala eta Inspektzio akademikoaren partaidetzarekin

### 3.3 | Sentsibilizazio ibilbideen eta tresnen sorkuntza sostengatu (eskoletan)

Gure partaideei kalitatezko eskaintza segurtatzeko, euskal kulturari buruzko sentsibilizazio tailerrak bultzatzen dituztenak sostengatzen ditu EKEk.

- **Eskola denboran**

Gure partaide instituzionalek sostengatzen badituzte eskola denborako tailerrak, EKEk erabaki du eskolen arteko proiektu kulturalak defenditzea.

2015ean, proiektu hauek dute EKEren dirulaguntza ukan :

- Hartza Altzoan festibala, Herri Soinu
- Jazz in College kontzertua, La Citadelle kolegioa

- Euskarazko antzerkiaren astea, Euskal Haziak
- Egunak kulturak, Biga Bai
- Trukarte egunak, Trukarte

Bestalde, bere berrantolaketa kari, IDB-k ez ohizko dirulaguntza bat ukan du EKErengandik, euskal dantzaren inguruko ibilbideen bultzateko. Ibilbide horiek eskoletan deklinatuak izan dira, beste partaide instituzionaleen sostenguarekin.

- **Eskolatik kanpo**

Euskal kulturari sentsibilizatzen duten ekimenak biderkatzeko asmoz, EKE publiko desberdinak biltzen dituzten hainbat egiturekin bildu da (hautzaindegi, zahar etxe...), partaidetza hitzarmenak izenpetzeko eta bere diru sostengua proposatzeko. Lehen deklinazioak 2016an garatuko dira.

Bestalde, **KILT** egitasmoak (**K**nowledge **I**ntity **L**anguage **T**ools – **K**ultura **T**resnak **H**arremana **E**rrazteko) bere bidea segitu du 2015ean. Bost herrialde -Eslovakia, Italia, Katalunia, Eskozia, Ipar Euskal Herria- eta 8 partaide (horietan EKE eta AFMR Etxarri) biltzen dituen proiektu hau sortu zen osasun eta medikuntza alorreko langileak laguntzeko harremanetan sartzen parean duten pertsonarekin. Ahalmen honen garatzeko, KILT egitasmoak formakuntza moduluak eta kit pedagogikoak ekoiztu eta probatu ditu, harremanetarako gaitasuna eta parean denaren kultura eta hizkuntza berezitasuna konduan hartzen dituztenak. Egitasmoa 2013ko urriaren 1ean hasi zen eta 24 hilabeteren buruan bururatu da, hots 2015eko urrian. “Leonardo Berrikuntza Transferentzia” europar programan sartzen zen eta bere kudeaketa orokorrak ondoko antolaketa eskema hau segitu du :

- Tresna generikoen produkzio fasea (2013ko abendua- 2014ko uztaila)
- Tresna baliagarrien produkzio eta probatze fasea (2014ko iraila- 2015eko uztaila) : tresna generikoen baliagarritasuna probatu da bost esperimendazio-lurraldeetan, aitzinetik begistatu publiko berezi batzuekin
- Proiektuaren denbora osoan, lan denbora berezi bat eskainia izan zaie komunikazioari eta emaitzen barreiatzeari.
- Bi urteetan zehar *in itinere* ebaluazio bat egin du kanpoko aditu batek, bai partaidetzaren funtzionamenduari buruz, bai emaitzei eta igurikatzen zenari buruz.
- Proiektu osoaren eta partaidetzaren koordinazioa, baita ere administrazio eta diru kudeaketa Etxarriko AFMRak eraman du.

Lan antolaketa orokorra errespetatuz, 2015eko lehen sei hilabeteetan EKE **Kilt** formakuntza programa esperimendatzen aritu da. Lehen moduloa frogatu du (berak sortu zuena) bigarren mailako euskarazko erakasle batzuekin. Modulu honek nortasunaren ulermenarako elementu batzu eskaintzen ditu, *lurralde batean bizitzea*-k zer erran nahi duen aztertuz eta gai horrekiko jarrera desberdinak perspektiban ezarriz. Lehen moduluak lau sekuentzietan osatua da (3 oroneko 3 sekuentzia, azkena oren batekoa), ondoko gaietakoak :

- 1-Lurralde batean bizitzea: Behako kontu bat da
- 2-Lurralde batean bizitzea: Bizimolde baten hautua da
- 3-Lurralde batean bizitzea: Historia baten emaitza da
- 4-Bizi naizen tokia eta nire baitan bizi den ametsa...



Bestalde, 2015eko uztailearen 9 eta 10ean, EKE-k formakuntza modulu eta sekuenziak sortu dituen Kilt-eko GPO taldea (Groupe de Production des Outils) errezebitu du Uztaritzen. 5 herrialdeetako pedagogian adituez osatu talde horrek azken zalantzak trenkatu ditu.

Azkenik, EKE bera izan da Barzelonan 2015eko irailan, Kilt programaren azken bilkura orokorrean parte hartzeko. Hemen aztertua izan da "Erasmus +" frantses agentziari itzuli behar zaion bilan txostena bai eta proiektuaren segida segurta lezakeen nazioarteko egitura baten sortzeko perspektiba ere.

## 4 | Eskaintza numerikoa garatu

### 4.1 | « Soka » erakusketa multimediararen ekoizpena

#### "SOKA" erakusketaren asmakuntza eta ekoizpena

"SOKA, euskal dantzaren urratsetan", Euskal kultur erakundeak ekoiztua du, Gipuzkoako diputazioarekin eta "Donostia 2016" fundazioaren partaidetzarekin. Euskal dantza hobeki ezagutaraztea du helburu, publiko zabalari batez ere.

Erakusketa berri honetan, lau hizkuntzatan (euskara, frantsesa, gaztelera, inglesa), 130 m<sup>2</sup>-ko eremuan, euskal dantzaren inguruko 400 ilustrazio baino gehiago daude kontsultagarri (argazki eta irudi bildumak, lekukotasun zatiak, soinu zatiak e.a.). Artxibo horiei gehitu behar zaizkie euskal dantzaren estetika edota alderdi sozialaz eginak izan diren bideo sorkuntzak.

Azpimarratzekoa da bestalde, EKE-k eraman "Eleketa" ahozko memoriaren bilketaren kariatara, euskal dantzaren inguruko anitz lekukotasun grabatuak izan direla eta horien zati frango ikusgai direla erakusketan.

Edukien aberastasun guzia jendeen esku uzteko, ukipen-pantailak, formatu handiko telebistak, kuadro numerikoak, ordenagailuak eta bideo proiektzio eremuak baliatuak dira.

Halaber, erakusketaren partaide den Euskadiko Filmategiko altxor batzu erakutsiak dira bai eta bertze artxibo arraro frango ere (besteak beste František Pospíšil etnologo txekiarrek 1927an Baionan, Lekarozen eta Donostian egin filmak). Adibidez argazki-kazetaritzaren sortzaileetarik bat izan den Robert Capa-k (Endre Friedmann, 1913-1954) 1951ko abuztuan Saran egin argazkien bost erreproduktzio ikusten ahal dira. Balio handiko dokumentu eder hauek New York-eko "International Center of Photography" zentroarenak dira.

Erakusketaren ekoizteko eta ikusgai diren edukien biltzeko, EKE-k partaidetza anitz sortu ditu instituzio, elkarte eta jende desberdinekin (ikus

<http://www.eke.eus/eu/soka/erakusketa/egitasmoaren-kudeaketa-eta-parte-hartzaileak> web-orria).

## **Eszenografia eta multimedia hautuak**

Bisitaria lau eremu tematikoren inguruan egituratu espazio batean ibiltzen da.

Eremu tematiko bakoitzean, erakusketaren gaiarekin zerikusia duten multimedia osagaiak kontsultagarri dira. Bisitaria nahi bezala ibil daiteke, bisitak ez dauka eta zentzu jakinik. Modulo horiek osatzen dituzten panelek bisual eta testu indartsuak badituzte. Paneletan, telebistak eta kuadro numerikoak txertatuak dira. Bestalde, erakusketaren berezko argiztatzearen euskarriak dira. Hamalau ukipen pantailek, moduluetako mezu orokorrak sakontzeko parada ematen dute informazio eta ilustrazio osagarriak eskainiz.

## **Ibiltaritzarako optimizatua**

SOKA erakusketa, gela konfigurazio ezberdinetara egokitzen ahal da, baldin eta oinarrizko baldintzak errespetatzen badira (130 metro karratuko gutieneko azalera - 2m55eko gutieneko altuera). Erakusketa gune handiagoentzat, osagai batzu gehitzen ahalko dira (argazki erakusketa, artxibo irudiak proiektatzeko gune bat, etab.).

## **Jorratuak diren gaiak**

### 1 - Dantzaren bizipen intimoak

- 1.1 | Zergatik dantzatzen duzu?
- 1.2 | Zer da (euskal) dantza ?

### 2- Euskal dantza & historia

- 2.1 | Euskal dantzaren estetika
- 2.2 | Berpizkundeko dantza-maisuetatik lztuetara
- 2.3 | Errege Eguzkiaren gortean eta Operan
- 2.4 | Generoaren gaia
- 2.5 | XX. mendea

### 3 - Euskal dantza & gizartea

- 3.1 | Ordenu soziala sendotu
- 3.2 | Ohitura dantzatuak erregulazio tresna bezala
- 3.3 | Erritualen erranahi gordeak
- 3.4 | Eliza eta dantza
- 3.5 | Zokoratua baina beharrezkoa: soinularia
- 3.6 | Generoa eta adina dantzan

### 4- Sorkuntzaren bideak

5000 bisitarik ikusi dute SOKA erakusketa Biarritzeko Santa Eukeniako elizpean, 2015eko irailaren 11tik urriaren 11ra lehen aldikotz aurkezturik egon delarik.

**SOKA-ren inguruko transmedia bitartekaritzaren deklinazioa**

SOKA-ren inguruan urratsez urrats antolatu nahi dugun transmedia bitartekaritza estrategiaren arabera, bisitariak ez du bakarrik erakusketaren «esperientzia fisikoa» ukanen. Deskubritze hori lagundu behar dugu, bai bisita aitzin, bai bisitaren ondotik. Pentsa daiteke erakusketa sekula bisitatuko ez dutenek ere euskal dantzarekin «harreman» bat izaten ahalko dutela, gutxienez hedabide (sare sozialak, webgunea, prentsa) edo animazio periferiko baten bidez (hitzaldia, ekitaldia, ikuskizuna, lehiaketa...).

Helburua da biziki publiko ezberdinen interesa piztea. Parte hartze hori, modu ezberdinez gauzatzen ahal da : Facebook orri bat atsegin izatea, sorkuntza lehiaketa batean parte hartzea, familiako artxiboak eskaintzea...

Hori dela eta, transmedia dispositiboak erakusketan gutti edo aski aipatzen diren gaien deskubritzeko halako sarbideak izanen dira. Beren izaera eta ezaugarrien arabera, publiko mota ezberdinei zuzenduak izanen dira.

Transmedia dispositiboak nagusiki 2016-2017 epealdian obratu eta animatuko dira.

Horiatarik batzu luzatuak edo berpiztuak izaten ahalko dira, publikoen harreraren arabera (mintzaldi tematikoak, lehiaketak...).

## **2015ean garatu diren deklinazioak**

### **"Euskal dantza" liburuxkaren argitalpen berezia**

Euskal kultur erakundeak Etxepare Institutuarekin egin partaidetza bati esker, Oier Araolaza-k euskal dantzaz idatzi lau hizkuntzako (euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez) dibulgazio liburuxka paperezko bertsioan erosteko parada badute bisitariak. Sintesia lan honi esker nahi duenak erakusketan aipatu hainbat gai sakondu ditzake.

### **Soka.eus, erakusketaren webgunea**

Webgune hau [www.eke.eus](http://www.eke.eus) plataformaren barnean aterpetua da. Kultura nortasun propio azkar batekin, lau hizkuntzatan eskainia (euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez), funtzio ezberdinak betetzen ditu, bai erakusketaren bisitaren aitzin, bai eta ondotik ere. Hala nola, publikoari xehetasunak ematen dizkio erakusketa bisitatzeko tokiei, egunei eta ordutegiari buruz. Halaber, deskubritze modalitateak, animazioen egitarauak eta promozio argazkiak eskaintzen ditu. Ondoko hilabeteetan gainera, aditu batzuen testuak, dokumentuak, biografiak eta erakusketan landuak diren edo doi-doi aipatuak diren gai batzuei buruzko lotura batzu eskainiko ditu ere. Adibidez, "Eleketa" programaren kariatara, euskal dantzaren gaiaren inguruan bilduak izan diren lekukotasunak (64 pertsona elkarrizketatuak) baloratuak izanen dira bideo zati batzuen bidez.

### **Euskal dantza "Irudimena" sormen-lehiaketaren ardatz**

Euskal kultur erakundeak eta Azkue Fundazioak « Irudimena » sormen lehiaketaren 5. edizioa antolatu dute, 2015eko urriaren 1etik azaroaren 15era. Lehiaketa honen helburua euskal kulturaren inguruko sormen literarioa, grafikoa eta musikala bultzatzea da gazteen artean. Soinu batean oinarrituz (gaien, estetikan...) parte hartzaileek testu bat, soinu berri bat edo irudi bat asmatu behar zuten. 5. edizio hortan, soinu guziek zerikusia zuten euskal dantzarekin. Hogeita bat parte-hartzailek aurkeztu dituzte obrak. Sariak Durangoko azokan banatu dira, 2015eko abenduaren 6an. Sari guztiak [www.irudimena.eus](http://www.irudimena.eus) orrian ikus daitezke.

### **“Dantza Izpiak” argazki erakusketa**

SOKA erakusketaren kariatara, Euskal kultur erakundeak Gabrielle Duplantier argazkilariari lan berezia manatu zion. Euskal Herria zeharkatu du euskal dantzaren eta bereziki ihauteriak, maskaradak eta Besta Berri bezalako ekitaldien inguruko argazki ezberdinen hartzeko. Lan horren emaitza gisa zuri-beltzezko hogeitamar bat argazki erakutsiak dira erakusketa batean.

Erakusketa 2015eko irailaren 3tik 25era Biarritzeko mediatekan aurkeztua izan zen eta ondotik azaroaren 3tik 25era Bordele ondoko Cenon herriko Rocher de Palmer kulturgunean.

### **"Soka" erakusketaren oihartzuna Idahon**

2015eko uztailaren 28tik agorrilaren 2ra Boise Idahoko hirian (AEB) iragan den “Jaialdi” festibalaren kariatara, SOKA erakusketako zombait argazki eta bideo artxibo erakutsiak izan dira bertako Euskal Museoa. Aurkezpen hori Boiseko Basque Museum-aren, Etxepare Institutuaren eta Euskal kultur erakundearen arteko partaidetza bati esker gauzatu izan da. Boiseko museoak Euskal kultur erakundeak prestatu argazkiak eta multimedia aplikazioa txertatu ditu bere eszenografia berrian. “Jaialdi” denboran ibili diren bisitariek SOKA erakusketaren gai nagusien berri ukan dute artxibo lagin bati esker.

Paradaz baliatu bada ere lehen-lehenik bere erakusketa berriaren inguruan komunikatzeko, Euskal kultur erakundeak ez du baztertzeko SOKA-ren ibiltaritza transatlantiko baten egingarritasuna aztertzea ondoko hilabeteetan.

## **4.2 | Euskal kultur erakundearen internet atariaren kudeaketa eta eguneraketa**

### **2015eko estatistikak**

- Bisitak : 291 935 (2014an baino %10,5a gehiago)
- Bisita bakarrak : 210 887 (2014an baino %13,41a gehiago)
- Ikusitako orriak : 940 162 (2014an baino %5,37a gehiago)

### **Webgunearen aterpetzearen eta erreferentziamendu naturalaren hobetzea**

2014an, webgunearen aterpetzea Bidarteko Izarbel Teknopolon kokatua den Aditu data center-aren esku utzia izan da, 10 urte baino gehiagoz sarean ezarriak izan diren eduki guztiak behar bezala babestuak izan daitezke. 2015ean, aterpetze hori hobetua izan da, edukiak erosoago editatuak eta kontsultatuak izan daitezke.

Bestalde, 2014ko irailaz geroz, eke.eus EKEren webgunearen domeinu nagusia bilakatu da, eke.org domeinu “historikoa”-ren orde. Google bezalako bilatzaile batean webgunearen erreferentziamendu naturalean aldaketa horrek arazorik eragin ez dezan, 2015ean zehar, segipen lan berezi bat egin da (ber-bideratze hutsen zuzenketa, lotura hautsiak, etab).

## Informazio zaintzaren hedapena

Euskal kultur erakundeak 2012an hasi administrazio eta zuzenbide alorreko informazio zaintza jarraitu du 2015ean, horren helburuak hauek direlarik :

Euskal artista eta elkarteentzat:

- 1901eko legepean diren elkarteentzat baliagarriak izan daitezkeen iturrien xerkatzea, izan fiskalitate, legedi edo antolaketa mailan ;
- Finantziario aukeren aurkitzea, kultura egitasmoen gauzatzeko (laguntzen gida, deialdiak), bai eta hedapenerako ere ;
- Kultura elkarteak edo euskal artistak interesatzen ahal dituzten formakuntza eskaintzak biltzea (Euskal Herrian eta Frantzian), bai eta Euskal Herriko lan eta ikastaldi eskaintzak ere.

Programatzaile publiko eta pribatuentzat:

- Ipar Euskal Herriko kultura eragileen eta elkarten (erakundeak, elkarteak, artistak, pertsona lagungarriak, etabar) errepertorioa ;
- Ipar Euskal Herriko eskaintza artistikoaren eta kulturalaren agenda (erakusketak, ikusgarriak, animazioak, mintzaldiak, etabar) ;

Bilketa lan horren emaitza [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko “Kultura eragileak” atalean agertzen da sailkaturik. Bereziki tokiko kultura biziaren eragileei zuzendua den egiazko lanabes-kutxa dugu hau. Bildutako informazioa espazio horretako atal desberdinetan aurki daiteke, hots :

- Profesionalen albiste haria : kultura eragileei zuzentzen diren albiste aukeratu batzu (deialdiak, lehiaketak, formakuntzak, lan eskaintzak...) boletin baten bidez hedatzen direnak, astero eta hilabetean behin (700 harpidetu baino gehiago) ;
- Kultura eragileen errepertorioa (gaika sailkatuak diren festibalen zerrenda batekin, bai eta ikusgarri gelen zerrendarekin ere);
- Ipar Euskal Herriko sorkuntzen katalogoa ;
- Kultura biziaren behatokia : euskal kulturaren agenda eta Iparraldeko kultura eragileak eta toki artistikoak herrika eta herri elkargoka sailkatuak (agenda & albisteen artxiboak) ;
- Formakuntzen eta topaketen txostena : EKEk kultura elkarteentzat antolatu jardunaldiei, tailer tematikoei eta formakuntzei buruzko dokumentuak biltzen ditu.

Paraleloki, euskal kulturari mugatzen ez den webografia profesional generalista bat txertatua da [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko “Kultura eragileak” atalean. Sailka (ikusgarrigintza, musika, arteak...) eta gai transbertsalen arabera (lanbideak eta formakuntzak, kudeaketa, fiskalitatea eta zuzenbidea, kultura politikak...) sailkatuak diren lotura profesionalen aurkitegi bat da.

“Liburutegi/mediatekei zuzendu kultura aktibitateen sareko gida” bat eskuragarri da ere irakurketa publikoko eragileentzat. “Sorkuntzen katalogoa”-ren osagarri izan daiteke. Horrela, programatzaileek bi tresna baliagarri badituzte, mintzalariak edo euskal ekoizpen artistiko eta kulturalak bilatzen dituztelarik.

## **Euskal kulturaren aktualitateen eta agendaren eguneraketa**

Kultura eragileek eman datuetatik abiatuz eta euskarri ezberdinetako prentsa bilduma baten laguntzaz, Euskal kultur erakundeak egunero ipar Euskal Herri mailako euskal kulturaren agenda osatzen du (mintzaldiak, kontzertuak, animazioak...).

Agenda horretaz gain, aktualitateari buruzko lan berezi bat egiten du ere, erregulariki eguneratzen den albiste hari baten bidez. Paraleloki, zaintza lan horrek, euskal kultura eragileen, elkarten eta egituren errepertorio publikoa eguneraturik mantentzeko aukera eskaintzen du. Informazio guzi horiek herrika geolokalizatuak dira : horrela, bildutako datuei esker, urteko kultura ekitaldiei buruzko estatistika batzuk atera daitezke, herri elkargoka, gaika edo denboraldika.

Aipaturiko lan hori, euskal kultura biziaren behatoki baten lana da. [www.eke.eus](http://www.eke.eus) web atariko atal batek herri elkargoka eta herrika sailkatu datuen ikusteko parada eskaintzen du.

### **2015ean**

- 1197 gertakari sartuak izan dira [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko agendan
- Horietan 1046 izan dira Lapurdin, Baxe-Nafarroan eta Xiberuan iragan gertakariei lotuak. Gaineratekoak, Hego Euskal Herrian edo Euskal Herritik kanpo iragan gertakariei lotuak izan dira.

Bestalde argitaratzen ditugun Xan Airek hemengo kultur eragileei egin elkarriketek panorama hori molde kualitabo batez osatzen dute. 60 baino gehiago eginak izan dira 2008tik hona.

### 2015eko elkarriketak

- Xavier Baylac
- Mixel Etxekopar
- Aguxtin Alkhat
- Marie-Andrée Ouret
- Josetta Dacosta
- Oskar Alegria
- Argitxu Camus
- Luzien Etxezaharreta

### **Jakintza entziklopediaren iturrien sailkatzea**

Publiko zabala informatzea baliabide ezberdinak sailkatuz, kultura, hizkuntza eta ondare gai nagusiak sakontzeko aukera eskainiz (ondare material eta inmateriala, euskara, bertsularitza, musika, antzerkia, dantza, arte plastikoak, etab). Hori da EKEk finkatu helburua, oinarritzko jakintzen erreferentzietako iturriak sailkatuz (alde historikoak, soziologikoak, teknikoak, etab). Konkretuki, sailkatze horren egiteko, ezinbesteko baliabide-iturri nagusiak gaika zerrendatuak dira. Bestalde, gaikako webografiak (web loturen zerrendak) proposatuak dira, aktualitatearen arabera erregulariki eguneratuak direnak ere. Zaintza lan horren emaitza [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko atal tematikoetatik kontsultagarriak dira (dantza, musika, bertsularitza).

## **Kanpoko eragileen ekarpenak**

Euskal kultur erakundearen nahia da, Euskal Herriko biztanleek parte har dezaten beren kulturaren ezagutarazteko tresnen sortzean, bereziki [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariaren bitartez. Karia hortara, aipagarriak dira adibidez, sarean erregulariki ezarriak diren Joseph Maris musikariaren partizioak (400 bat dokumentu daude urrik publikoaren esku utziak direnak).

Bestalde, 2015ean EKE-k sostengu teknikoa ekarri dio oraino “Olentzeroren lagunak” elkarteari, Ipar Euskal Herriko Olentzerori buruzko informazioak eta artxibo dokumentuak [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko orri berezi batean publikatuak izan daitezen ([www.olentzero.eke.eus](http://www.olentzero.eke.eus)).

## **Komunikazioa sareetan**

2015ean ere, Euskal kultur erakundea sare sozialetan present egon da (bereziki Facebook eta Twitter-en). Tresna horiek egunero segitzea ezinbestekoa bilakatu da besteak beste EKEren irudiaren kudeatzeko. Horrek, komunitate animazio baten plantan ezartzea eskatzen du (Community Managing).

Bestalde, EKE emailing pertsonalizatuan oinarritu da komunikazio zehatz batzuen egiteko sare jakin batzuetan (publiko zabala, prentsa, artistak, elkarte-kideak, etab).

EKEk bi berripaper mota baliatzen ditu :

- Bat publiko zabalari zuzendua, astero euskal kulturaren agendarekin 2000 kontakturi baino gehiago igorria dena (erabiltzailearen hizkuntzaren arabera, euskaraz ala frantsesez)
- Berripaper “profesionala” tokiko kultura eragileei zuzendua. Bertan, artisteentzat edo kultura egituren funtzionamenduarentzat baliagarriak diren informazioak biltzen dira. Hilabetean behin igortzen da 800 kontakturi gutti gora behera (erabiltzailearen hizkuntzaren arabera, euskaraz ala frantsesez)

Tokiko komunikabideekin egin elkarlanak ere kultura informazioa sarean hedatzeko parada eskaintzen du. Adibidez, [eke.eus](http://eke.eus) atariko agenda Euskal Jaurlaritzaren Kulturklik plataforman baliatua da ere. Horrek, ipar Euskal Herriko kultura bizia hego Euskal Herrian hobeki ezagutaraten laguntzen du. 2015ean, datu trukaketa horren automatizatzeko urratsak eginak izan dira.

Modu berean, KULTURAP deitu eskuko telefonoendako aplikazioaren garatzaileak (Digitalidadea enpresa eta Gipuzkoako Diputazioa) gure agenda baliatzen hasi dira, telefonoan kontsulta daitekeen 7 probintziendako kultura agenda baten osatzeko.

## 5 | Kultura aktoreak eta elkarte-kideak sostengatu

### 5.1 | Egitasmo egituratzaileak edo/ta berritzaileak lagundu

Sortu denetik, Euskal Kultur Erakundeak jakinduria profesionalak lortu ditu kultura arartekolaritzan. Horrela, koordinatzaile eta errexe lana egiten du kultura proiektuen garapenean, elkarte eta erakunde ezberdinekin.

Alor batzuek sostengu berezi baten beharra badaukate, egituratzeko edo garatzeko.

Euskal Kultur Erakundearen lehentasunetan agertzen dira euskal dantza eta zinema, bai eta ere publiko gazteei zuzendu ikusgarriak.

#### 5.1.1 Euskal dantza

2014ko urte bukaeran, euskal dantza elkarteek Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren egitasmo berria eta haren estatutu berriak bozkatu dituzte. Denbora berean, Euskal Herria 2015-2016 Lurralde Kontratuari laguntza baten eskaera egin zaio, egitasmo horrentzat. Joan den udaren bukaeran, eskatu diru laguntzek ukan baiezko lehen erantzunei esker, egitasmo berri hori abiatu zen, 3 ardatzetan egituraturik :

- ✓ Transmititu eta sentsibilizatu
- ✓ Lagundu eta kontseilatu
- ✓ Bildu eta sortu

1/ Transmititu eta sentsibilizatu

1 - a/ Ikasketa ibilbide baten ontzea

Maurice Ravel Euskal Itsas Hegiko Musika Kontserbatorioko dantza sailaren parte hartzearekin, euskal dantzen ikasketa ibilbide baten oinarriak finkatuak izan dira, eskolaldiko 3 urratsei dagozkien 3 ziklotan antolaturik :

- lehen mailako eskola: 1. zikloa (iniziazio ziklo bat barne hartzen duena),
- kolegioa: 2. zikloa,
- lizeoa: 3. zikloa.

Egitura honen berezitasuna ondoko posibilitateetan oinarritzen da:

- 1. zikloko klase guztiak eta 2. zikloko eta 3. zikloko klaseen parte bat Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak formatu borondate oneko irakasleek ematen dituzte,
- 2. ziklotik goiti, bereziki motibatuak diren dantzarietara euskal dantza elkarteetan eman irakaskuntzari gehitzen zaion irakaskuntza eskaintzen zaie.

1 - b/ Borondate oneko irakasleen formakuntza

- 2015/2016 eskola urtean, Baionan eta Biarritzen: borondate oneko euskal dantza irakasleen formakuntza. Klase horien segitzeko, 32 gaztek izena eman dute.



## 1. Maurice Ravel Euskal Itsas Hegiko Musika Kontserbatorioaren laguntzarekin.

### 1 - c/ Goi mailan praktikatzeko formakuntza sareak

(euskal dantza elkarteetan eman irakaskuntzari gehitzen zaion irakaskuntza)

- 2015/2016 eskola urtean, Maulen: Xiberoko dantzako Master Class klasea eskaini da, leheneko eta terminaleko 17 ikasleri zuzendurik (asteroko funtzionamendua).
- 2015/2016 eskola urtean, Baionan: Zabala modulua (dantza klasikoa eta euskal dantza) bi klasetan banatu 50 dantzariri zuzendurik (asteroko funtzionamendua).
- 2015/2016 eskola urtean, Irisarrin: Zabala modulua (dantza klasikoa eta euskal dantza) bi klasetan banatu 25 dantzariri zuzendurik (asteroko funtzionamendua). Irisarriko klase horiek Irisarriko Herriko Etxearekin eta hango dantza taldearen partaidetzarekin antolatu dira
- Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak Irisarriko Herriko Etxeari kontseiluak eman dizkio dantza muntaduren erosteko eta hango dantza taldea eta Zabala moduluko klaseetarik bat hartzen dituen gelan ezartzeko (mirailak eta barrak),
- Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak bigarren gela bat - Zabala moduluak erabiltzen duena - barrez eta mirail mugikorrez hornitu du.
- 2015/2016 eskola urtean, Hendaian: Euskal dantza modulu osagarria, Maurice Ravel Euskal Itsas Hegiko Musika Kontserbatorioan dantza klasikoan ari diren 25 dantzariri zuzendurik. Dantzariak bi klasetan banatuak dira (asteroko funtzionamendua).

### 1 - d/ Euskal dantza elkarteetan eman formakuntzen laguntzea

- 2015/2016 eskola urtean, Baionan: Katalina de Erauso pastoraleko dantzarien prestatzea. 15 dantzari formakuntzan.
- 2015/2016 eskola urtean: ordainduak diren irakasle batzuk eman klaseen ordaintzea (8 elkarte hunkiak dira).

### 1 - e/ Ikastaldiak

- Urriaren 17an eta 18an, Okzitaniako Tolosan : Mutxiko, Dantza luze, Euskalduna dantzei buruzko formakuntza.
- Urriaren 22an eta 23an, Arzacq-en: Xiberoko Branlea dantzari buruzko formakuntza.
- Azaroaren 28an, Iruñean: Xiberoko dantzako Master Class klasea.

### 1 - f/ Eskoletako sentsibilizazio lana (PAC egitasmo kultural eta artistikoa duten gelak)

- 2014/2015 eskola urtea: 8 egitasmo burutu dira (103 oren, 170 ikasle).
- 2015/2016 eskola urtea: 7 egitasmo burutzen ari dira (116 oren, 200 ikasle).
- Martxoan: irakasleak Dantza Jauziei sentsibilizatzea.

### 1 - g/ «Publiko orori» zuzendu sentsibilizazioa

- Azaroaren 7an, Barkoxen: Xiberotar dantzari buruzko mintzaldia.
- Azaroaren 22an Cenon-en: euskal dantzaren estetikari buruzko mintzaldia (azaroaren 13ko atentatuengatik gibelatu mintzaldia).
- Soka erakusketa. Euskal Kultur Erakundeak ekoiztu erakusketa: Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak euskal dantzari buruzko erakusketa horretan parte hartu du.

2/ Euskal dantza elkarteak lagundu eta haien arduradunei aholkuak eman

2 - a/ Euskal dantza elkarteek eraman ekoizpen egitasmoen laguntzea

- Maritzuli konpainiaren alde: *Lau urrats eta kitto* ikusgarriaren sorkuntza laguntzea. (Euskal Kultur Erakundearen / Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren laguntza). Programatzea: uztailearen 4an Senperen, uztailearen 16an Ezpeletan, urriaren 31n Donibane Garazin, azaroaren 21ean Luhuson (azaroaren 13ko atentatuengatik gibelatu emanaldia).
- Leinua konpainiaren alde: *Zure Osagarriari* ikusgarriaren sorkuntza laguntzea (Euskal Kultur Erakundearen / Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren laguntza). Hedatzea: maiatzaren 15ean Barkoxen, uztailearen 30ean Baionan, agorrilaren 31n Milafrangan, irailaren 20an Lekornen, irailaren 27an Urdiñarben, azaroaren 7an Biarritzen.

2 - b/ Hedapena laguntzea

- Maiatzaren 3an, Baionan: Dantzari Ttiki elkarretaratzearen antolatzea (ekoizpena: Iparraldeko Dantzarien Biltzarra / Orai Bat taldea / Baionako herria). 1 500 dantzari, 1 505 ikusle.
- Irailaren 27an, Biarritzen: Maritzuli konpainiaren *Nundik nora ?* ikusgarriaren programatzea (ekoizpena: Euskal Kultur Erakunde / Iparraldeko Dantzarien Biltzarra). 112 ikusle.
- Azaroaren 21ean, Luhuson: Maritzuli konpainia eta Hergaraiko Izarrak eta Xinkako elkarteak elkartzen dituen *Lau urrats eta kitto* ikusgarriaren programatzea (azaroaren 13ko atentatuengatik gibelatu emanaldia).
- Abenduaren 19an eta abenduaren 20an, Luhuson: Gazteria eta Getaria elkarteek *Makila* ikusgarriaren programatzea.

2 - c/ Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren webgunean eskuragarri diren baliabideak:

- Sareko mediateka baten sortzea, non Euskal Herriko dantzen musikak kitorik telekargatzen ahal baitira (2015eko urtearen bukaeran ehun bat titulu eskuragarri).
- Euskal dantza elkarteek jardueri (ikusgarriak, bereziki) buruzko informazioen argitaratzeko ahala ematen duen agenda baten sortzea .
- Euskal dantza elkarteek fitxategi baten sortzea.

3/ Bildu eta sortu, Bilaka poloaren jardueren bitartez

Bilaka Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren koreografia ekoizpen poloa da. Haren helburua erreferentziatzko euskal dantza ikusgarriak sortzea da. Euskal dantzaren estetika guzietan irekia izanik, Bilaka artista kolektiboa da, maila oneko euskal dantzari amaturrei eta profesionalei irekia. Musika tradizionalerako musikariei ere irekia zaie. 2015ean sortu ikusgarria hiru parte autonomoz osatua da:

- *Zaharrak berri*, koreografia: Gari Otamendi,
- *Abbadia*, koreografia: Jon Maya,
- *Negua*, koreografia: Mathieu Vivier.

2015eko ekoizpenaren programatzea: apirilaren 24an Bilbon (*Abbadia*), urriaren 6an eta 10an Luhuson (hiru parteak), urriaren 25ean Hazparnen (*Abbadia*), azaroaren 29an Urruñan (hiru parteak), abenduaren 12an Donibane Lohizunen (*Negua*, karrikarako egokitu bertsioa), abenduaren 20an Biarritzen (*Negua*, karrikarako egokitu bertsioa).

Hedapen horren osagarri gisa, Bilakak *Leihotik* bere aitzineko ikusgarria anitzetan aurkeztu zuen ere. Honen koreografia Ihintza Irungaray-k eta Nathalie Vivier-ek egin zuten. Otsailaren 14an Uztaritzen, apirilaren 26an Baigorriin, maiatzaren 10ean Senperen, maiatzaren 15ean Maulen, maiatzaren 15ean Barkoxen, maiatzaren 23an Leioan, maiatzaren 30ean Saran, ekainaren 6an Ezpeletan (2 emanaldi), uztailaren 11n Maulen, uztailaren 11n Hazparnen, irailaren 13an Biarritzen, irailaren 29an Uztaritzen eta abenduaren 5ean Durangon eman zuten.

Azkenik, ekonomia munduko eragile batzuek Bilakari dei egin diote, beren aldeko ekintza artistikoak egiteko:

Urriaren 31n, Baionan (Baiona-Euskal Herriko Merkataritza eta Industria Ganbara), azaroaren 26an, Baionan (Abéradère inprimategia).

## 5.1.2 Gazte publikoa – “Kimu” programa

Haur, gazte eta nerabe publikoei zuzendu euskarazko sorkuntzen bultzatzeko formakuntza egitasmoa Euskal Herriko jokalaria, taula zuzendari eta sortzaileentzat eraikia izan da.

Laguntza hau oinarritzen da ibilbide norberatu batean, eta era ezberdinetan : izan daitezke goi mailako profesionalak abian ezarri « master-class » batzuen segitzea, edo han hemenka (nola Euskal Herrian, hala kanpoan) ikusgarri batzuen ikustera joaitea, ikerketa batzuen bideratzea, etabar. Azkenean, hautatuak izanen diren lau artistek amaierako lan bat eskaini behar dute.

Ibilbide horretan parte hartuko dutenek euskaldunak izan behar dute, ikusgarrigintzan profesionalak edo profesionalizatzeko bidean, eta bederatzi hilabetez libre, ahal bezainbat ekitaldietan egoteko gisan.

Hiru urteetako programa bat da, eta urtero, iparraldeko eta hegoaldeko lau artista hautatuak izanen dira, Kudeaketa Batzorde bat alhan ezarria izan da. Honetan badaude Hego Lapurdiko Hirigunea, Baxe Nafarroako Eszenatokia eta Biarritz Culture elkarteak, hiru egitura hauek berezituak direlarik publiko gaztearen alorrean.

Erran gabe doa egitasmo hau mugaz gaindikoa dela ere. Horregatik, bai Donostia 2016 Fundazioak, bai Donostia Kultur elkarteak, parte hartzen dute egitasmo honetan.

2015eko, lau artista hautatuak izan dira, 2015eko irailaren 30ean ideki deialdiaren ondotik : Ainara Gurrutxaga, Ander Fernandez, Eneritz Zeberio eta Amaia Hennebutte.

Hauen formakuntza programa 2016ko urriaren 7an amaituko da.

## 5.1.3 | Euskal zinema

2014 eta 2015ean euskal film batzu banatzeko asmoz, Atalante zinegelak, Euskal kultur erakundearen eta ipar Euskal Herriko zinegela gehienek sostenguarekin abiatu esperientzia arrakastatsua erakutsi du lurralde honetako ikusleek interesa badutela euskal zinemarentzat. Egitasmo horrek eragileek arteko sinergiak sortzen ditu. Halaber, sare bat sortzeko aukera eskaini du, bai eta euskal zinemaren zirkulazio profesionalago bat eta bide batez publikoen dibertsifikazio bat ere.

Halere, hedapena lurralde honetako banaketa enpresa komertzial baten sortzean oinarritzen da. Horrek oztopo frango topatzen ditu eta hainbat galdera sortzen ere. Alabaina, esperientziak erakutsi du horrelako aktibitate baten bolumen ekonomikoa aski mugatua dela.

Bizkitartean, esperimentazio bezala, EKEk Pablo Malo-ren « *Lasa eta Zabala* » eta Asier Altuna-ren « *Amama* » filmen banaketa lagundu du, besteak beste film egileak etorrarazteko gastuetan edo filmen promoziorako materialarentzat parte hartuz.

Bestalde, EKEk zinema-jabeen sare bat sortzeko asmoa du. Atalante sare hortan oinarritzen ahalko da filmen zirkulazioa hobetzeko, filmek zinema gela bakoitzean gehiago iraun dezaten, bai eta film horien inguruko animazioa koordinatzeko eta gastuen edo banaketaren gastu abantzuen ordainketa bermatua izan dadin.

Zinema-jabe partaide identifikatuak hauek dira : l'Atalante, Saint Louis Elkar Aditzearen zinema gelak, Le Royal, Biarnoko zinema gela nagusiak eta Akitaniako gelen sareak (Utopia, ACPA).

Denetan, 20 eta 25 zinema gelen artean Akitania mailan.

### "Chez les Basques" dokumental zikloa

Euskal kultur erakundeak *Chez les Basques* zikloa aurkeztu du azaroaren 7tik 15era. Parada ezin hobea zinemaren hasieratik zinegile ospetsuek lurralde honetako biztanleen egunerokotasuna filmatuz egin zituzten dokumentalak (berriz) deskubritzeko. Emanaldiak Donibane Lohizunen, Maulen, Urruñan, Kanbon, Hazparnen, Biarritzen, Ortzaizen, Hendaian, Donapaleun, Donibane Garazin eta Baionan izan dira, hots filmak eginak izan diren tokietatik ahal bezain hurbil.

Bernardo Atxagaren mintzaldia zikloaren zabaltzeko, Euskadiko Filmategiaren zuzendaria den Joxean Fernandez-en presentzia, zine-kontzertu paregabe bat Philippe de Ezcurra akordeoi jole ospetsuarekin, topaketak filmetako protagonistekin, trukaketak egileekin, ikerlariekin edo antropologoekin... Horiek guziek, gure historia amankomuna zertxobait elkarbanatzeko parada eskainiko digute.

#### Egitaraua

- DONIBANE LOHIZUNE – SELECT ZINEA | azaroaren 7an larunbata | 20:30 *Ziburu*, Bernardo Atxagaren mintzaldia + *Around the world with Orson Welles*, Orson Welles
- DONIBANE GARAZI - VAUBAN ZINEA | azaroaren 8an igandea | 17:00 *Euskadi été 1982*, Otar Iosselliani + *Garazi*, Jacques Krier, Jean-Claude Bergeret
- HENDAIA - LES VARIETES ZINEA | azaroaren 9an astelehena | 20:30 *Around the world with Orson Welles*, Orson Welles
- MAULE - MAULE BAITHA ZINEA | azaroaren 10ean asteartea | 20:30 *The Basques of Santazi*, Leslie Woodhead, Sandra Ott + *Maskaradak*, Jean-Dominique Lajoux
- HAZPARNE – HARITZ BARNE | azaroaren 11n asteazkena | 17:00 *Le curé basque de Gréciette*, Hubert Knapp + *Au Pays des Basques*, Maurice Champreux
- ORTZAIZE – GARBI ZINE GELA | azaroaren 12an osteguna | 20:30 *Around the world with Orson Welles*, Orson Welles
- KANBO - L'AIGLON ZINEA | azaroaren 12an osteguna | 19:00 *Around the world with Orson Welles*, Orson Welles + *Le curé basque de Gréciette*, Hubert Knapp
- URRUÑA – ITSAS MENDI ZINEA | azaroaren 13an ostirala | 20:30 *Le chemin d'Ernoa*, Louis Delluc, René Coiffard + *Rochers de la Vierge*, Auguste Lumière, Louis Lumière, Philippe de Ezcurra, soinu-jolearen musika sorkuntzarekin.
- BIARRITZ – LE ROYAL ZINEA | azaroaren 14an larunbata | 20:30 *Rochers de la Vierge*, Auguste Lumière, Louis Lumière + *Au Pays des Basques*, Maurice Champreux

- DONAPALEU – SAINT-LOUIS ZINEA | azaroaren 14an larunbata | 20:30 *Croquis en Soule*, Hubert Knapp + *Le curé basque de Gréciette*, Hubert Knapp
- BAIONA – ATALANTE ZINEA | azaroaren 15an igandea | 17:00 *Faire la parole*, Eugène Green.

#### 5.1.4 | Lurraldeko programatzaileen sarean ezartzea – « Ibilki » programa

Tresna horren bitartez, Euskal Kultur Erakundeak garapen bat eman nahi dio euskal antzerkiari, publikoa zabaldu eta arraberritu, hots iparraldean egiazko programatzaileen sare baten eraikitzea du xede.

Karia hortara, 2015ean, Dejabu Panpin Laborategia Konpainiaren « Arrastoak » obra iparraldean ahal bezainbat hedatua izan da, eta ondotik, udazkenetik lekora, Huts Teatroak ekoiztu « Etxekoak » antzezlanaren aldi izan da. Iparraldeko hamar hedapen egiturek parte hartzen dute gaur egun : alde batetik Hendaia, Senpereko, Bidarteko, Mauleko eta Donibane Lohizuneko Herriko Etxeek, eta bestetik, Ote Lore, Biarritz Culture eta Eihartzea elkarteek, bai eta Baxe Nafarroako Herri Antzokiak, eta Errobi Herri-Elkargoak ere.

Koordinazio eta komunikazio lana egiteaz gain egiturekin partaidetzan, Euskal Kultur Erakundeak diruz laguntzen du hautatua izan den konpainia, ikusgarri bakoitz katxetearen % 30a ordainduz.

« **Arrastoak** » ikusgarria emana izan da 2015ean :

- Hendaian – Mendi Zolan gelan – urtarrilaren 14an
- Larresoron – otsailaren 6an
- Biarritzen – Colisée gelan – martxoaren 18an
- Bidarten – Cinéma Family – apirilaren 17an
- Izpuran - azaroaren 27an
- Maulen - Maule Baitha gelan – azaroaren 28an

« **Etxekoak** » ikusgarria, lehen saioaz gain azaroaren 1ean, hiru tokitan emana izan da 2015ean :

- Larresoron – azaroaren 7an
- Hazparnen – abenduaren 5ean
- Hendaian – abenduaren 30ean

## 5.2 | Elkarteei, artisteei eta Herriko Etxeetako langileei zuzendu formakuntzak eta informazio bilkurak

### ■ « Dispositif Local d'Accompagnement (DLA) Aquitaine » dispositiboarekin

Elkarteei eta artisteei buruzko formakuntzak

Formakuntza guziak dohainik izan dira.

Kultura aktoreek arazoak edireiten dituzte beren eguneroko ibilimoldean eta behar bereziak badituzte formakuntza alorrean.

Euskal kultur erakundeak erabaki du laguntza zehatzak ekartzea sail horretan, eta ondorioz, formakuntza plangintza bat alhan ezarri du, DLA deitu dispositiboaren babesean.

Huna Euskal kultur erakundeak proposatu formakuntzak, DLA Aquitaine erakundearekin partaidetzan :

- 2015eko apirilaren 13an : **“Eskola erritmoen erreformari buruzko informazio gualdia»**  
Hizlaria : DDVA (Délégué Départemental à la Vie Associative erakundekoa).
- 2015eko ekainaren 15an : **“Lan-bide heziketa eta enpleguari buruzko informazio gualdia»**
- 2015eko irailaren 21ean : **“Elkartearen baliagarritasunari buruzko informazio gualdia”**  
Hizlaria : Frédéric Ansel.

Bestalde, hamar elkartek edo egiturek « **Elkartearen eskaintza eskola erritmoen erreforma berriaren kariatara** » gaia landu dute, “Sensibile” egitasmoko Frédéric Bobst jaunarekin.

### ■ Kulturaren aldeko Europako diru iturriak :

#### **Antolatzaileak : LABA formakuntza zentroa, IDDAC Gironde eta Euskal Kultur Erakundea**

Formakuntzarako bi egun antolatuak izan dira Uztaritzen : 2015eko abenduaren 8 eta 9an. Zuzenduak ziren kultura eragile, elkarte, lantegi edo erakundeetako arduradunei.

Helburua zeukaten nazioarteko elkarlan egitasmoak eraiki nahi dituztenei tresna eta baliabideak aurkeztea, edo lurralde mailan, Europako eta nazioarteko eskaintza deialdiak egin nahi dituztenei norberaren araberako argibideak ematea.

## 5.3 | Publikoak eta guneak hedatu

### 5.3.1. | Kultura hedapena Iparraldean

#### Baionako hiriarekin

##### «Kontzertu atipikoak »

Euskal Kultur Erakundeak antolatu ditu, Baionako hiriaren partaidetzarekin, bi kontzertu berezi, Baionako bestak kari.

2015eko uztailaren 31n, La Collégiale elizan : Damaris Alsunard (pianoa) eta Aurelia Lambert (biolina) bikotea, bi euskal konpositore handiren obrak eskainiz : Jean-Delphin Alard (1815-1888) eta José María Usandizaga (1887-1915).

2015eko agorrilaren 1ean, Protestanteen Tenpluan : Mario Gachis (gitarra, kantua, harmonika), Yves Bouillier (biolontxelo), Mathieu Convert (klarineteak) eta Laurent Gignoux (oboa, duduk).

#### Angeluko hiria

##### « Laboa gertutik » multimedia erakusketa

« Zazpi aldiz elur », Bernardo Atxagaren antzerkia eman aitzin, Ttanttaka Konpainiaren eskutik (hedapen kideak : EKE/Akitania Hegoaldeko Eszena Nazionala), Euskal Kultur Erakundeak « Laboa gertutik » izeneko erakusketa bat proposatu dio Angeluko Hiriari.

**Mikel Laboaren** (1934-2008) ahotsa ezagutzeko eta gozatzeko musika instalazioa da. Ordenagailu bati konektatu teklatu bati esker, bisitariak Mikel Laboaren ahotsa entzuten ahal du. Horrez gain, euskal kantari ospetsuaren kontzertu zatiak edo telebista emankizunak ikusten ahal dira tableta batzuetan.

Erakusketaren inguruan, bisita gidatuak antolatuak izan dira otsailaren 14 eta 21ean, arratsaldeko 15:30etan.

##### «Mugak» Ttitto Aguerren erakusketa

Ttitto Aguerre margolariak hainbat obra aurkeztu ditu Beatrix Enea gelan, 2015eko martxoaren 7tik apirilaren 4a arte.

## **Hendaiako hiria**

### **Abbadiako Behatoki Jauregia**

#### **« Kaperan A Kapela » zikloa**

Euskal kultur erakundeak, Hendaiako hiriak eta Hendaye Tourisme elkarteak antolatutako zikloaren 12. edizioa, a capella kantuari zuzendua.

- 2015eko apirilaren 18a : Maddi Oihenart | Jérémie Garat | Louisiame
- 2015eko urriaren 3a : Etchegoyhen ahizpak

## **Donibane-Lohizuneko hiria**

➔ Ihauteri eta Begiraleak elkarteekin batera, Donibane Lohizuneko Hiriak hainbat ospakizun proposatu ditu Ihaute garaian (Sorgin Gaua, Hartza Eguna, ...). Horren ondoan, Euskal kultur erakundeak hitzordu batzu antolatu ditu Kultur Zerbitzuarekin batera Euskal Ihauterien ezagutzeko eta ulermen giltza batzuen emateko :

« Euskal Ihauteriak » erakusketa – Ducontentia gelan 2015eko otsailaren 11tik martxoaren 8ra

Beñat Zintzo Garmendiaren erakusketa pedagogikoak 180 à 200 argazki elkartzen ditu. Euskal Herri osoko ihauterien ezagutzeko parada eskaintzen du, 10 gai berezien bidez.

Erakusketa elebiduna, sartzea dohainik.

- Beñat Zintzo Garmendiaren mintzaldia otsailaren 8an, igandez, 11:00etan Portuko Erretegian (frantsesez, sartzea dohainik) « Euskal Ihauteriak »
- « Neo Kotilun » Bardezeko KSI taldearekin otsailaren 8an, igandez, 14 :00etatik goiti. Ibilaldi alaitua Donibaneko karriketan (abiartzea Louis XIV. plazan) eta 16:00etatik goiti emanaldi berezia.

➔ Omenaldia "Iratzeder" olerkariari

2015eko urriaren 3an, Donibane Lohizuneko Kultura Zerbitzuak eta Euskal kultur erakundeak hainbat ekitaldi antolatu dituzte Donibane Lohizunen, Jean Diharce "Iratzeder" gogoan.

Omenaldi eguna Jean-Louis Davant-en mintzaldi batekin hasi da eta ondotik Iratzeder-en olerki liburuxkaren aurkezpena egina izan da.

Diabolo taldeak, Ikastolako, St Thomas d'Aquin eta Dona Maria kolegioetako ikasleek Iratzederen olerkiak irakurri eta kantatu dituzte. Bukatzeko, eguerditan auzapezak Iratzeder-en omenezko oroit-plaka estreinatu du, Begiraleak elkartearen parte hartzearekin.



## **Biarritzeko hiria**

➔ **Euskal literaturaren gaua** (poesia sorta baten sorkuntza), Milady mindegian, arte garaikideen espazioan , 2015eko agorrilaren 21ean, Itxaro Borda, Mylène Charrier (errezitatzaileak) eta Jean Christian Irigoyen (akordeoia) artistekin.

➔ **Euskara Zerbitzuarekin partaidetza.**

2012an bultzatutako elkarlanaren segida. 2015ean, EKEk bere aholku artistikoak ekarri ditu Mintzalasai festibalaren programazioarentzat (irailaren 21tik 27ra, euskarazko erabilera sustatzen duen hitzordua Biarritzen).

Horrez gain, irailaren 26an, *Soka* erakusketaren euskarazko bisita gidatu bat antolatu da Céline Mirailh-ekin eta Sustrai Colina bertsulariarekin. Bukatzeko, Biarritzeko Amalabak, Oldarra eta Pinpirina dantza taldeek emanaldi bat eskaini zuten.

## **Baxe Nafarroako herri antzokia**

Euskal Kultur Erakundeak euskal artista ezberdinak sostengatu ditu lurralde horretan :

- *Bakuna Show* (Cie Beritza) – 2015eko urtarrilaren 31a
- *Mokofina* (Lagunarte) – 2015eko urtarrilaren 20a
- *Amodioaren ziega* (Lauka Teatro) – 2015eko martxoaren 20a
- *Lau urrats eta Kitto* (Maritzuli) – 2015eko urriaren 31a
- *Emazteen iraultza* (Aitzindariak) – 2015eko urriaren 3a

## **Mauleko herria**

Euskal Kultur Erakundeak ikusgarri ezberdinak sostengatu ditu, hala nola *Mai en Scène* deitu festibala.

- *Leihotik* (Cie Etorkizuna) – 2015eko uztailaren 11n
- *Gernika* (Aukeran Kia) – 2015eko irailaren 19an
- *Biribil* (Kiribil Kia) – 2015eko urriaren 3an

## **Hameka-rekin**

### **Lan hitzarmen bat izenpetzea**

Errobi Herri Elkargoak eta Euskal Kultur Erakundeak partaidetza hitzarmen bat izenpetu dute 2015eko urrian, euskal antzerkiaren aldeko beren lankidetzaren koadro nagusia finkatzen duena.

Hitzarmenaren barnean sartzen diren puntu nagusiak dira :

- Sorkuntza eta hedapenari buruzko sostengua
- Antzerki sorkuntzari buruzko proiektu deialdia, bereziki amaturrei eta semi-profesionalei hedatua
- Elkarren arteko gogoeta, eskolatik kanpoko euskarazko bitartekotasunaz.

Errobi lurraldean dauden Euskal antzerkiaren aldeko bi aktore nagusiek beren indarrak juntatuko dituzte Errobi lurraldean, sorkuntzaren, hedapenaren eta euskal antzerkian aritzeko baldintza egokiak sortzeko.

Hitzarmen horren gorpuzteko, bi antzerki obra sostengatu ditu EKE-k udazkenean :

- *Ikuslearen showa* (Cie Ertza), 2015eko urriaren 31n.
- *Zer duzu Amy?*, 2015eko urriaren 31n.

### 5.3.2. | Kultura hedapena Akitanian

Gaur egun, Euskal kultur erakundea – eta bide batez euskal kultura – partaide ezagutua da, Euskal Herrian misionatuak diren egiturentzat, hala nola Akitania Hegoaldeko Eszena Nazionala, Malandain Ballets Biarritz edo Kontserbatorioarentzat, baina Akitania mailan ere, hala nola Bordele ondoko Cenon-eko Le Rocher de Palmer-entzat. Alabaina, honekin urte batzuetako partaidetza hitzarmen bat izenpetua izan da.

Horrela, 2015ean EKEk euskal kultura Akitania mailan hedatzeko lana jarraitu du, batez ere Cenon-eko Le Rocher de Palmer edo Akitania Hegoaldeko Eszena Nazionala bezalako egitura artistiko handien bitartez.

#### ▣ CENON-eko Le Rocher de Palmer

Le Rocher de Palmer-ek ekintza desberdinak burutu ditu, Euskal kultur erakundearen eta Etxepare Institutuaren partaidetzari esker :

- Artista egonaldia Juan Mari Beltran-ekin : 2015eko martxoaren 12tik 16ra

Euskal musikaren inguruko hitzordu ezberdinak antolatuak izan dira Rocher de Palmer-en eta inguruetan.

Gomita nagusia Juan Mari Beltran etnomusikologo eta musikari oiartzuarra izan da. Ekintza ezberdinak eraman ditu Cenon-en iragan den 5 eguneko egonaldiaren kariatara. Euskal musika tresnak ezagutarazteko tailerrak eskaini ditu lehen mailako eskola batzuetan (100 bat ikaslek parte hartu dute), kontzertu ttipiak eman ditu Rocher de Palmer-etik kanpo (apartamendu batean adibidez), eta euskal musikak ezagutarazteko euskarriak proposatuak izan dira topeka horietan.

- Beltran hirukotearen kontzertua, 2015eko martxoaren 16an

- Gabrielle Duplantier-en « *Dantza Izpiak* » argazki erakusketa (ekoizpena : EKE) – 2015eko azaroaren 3tik 25era

- Mikel Azpiroz-en piano kontzertua – 2015ko azaroaren 3an

## ▣ Akitania Hegoaldeko Eszena Nazionala

Ttanttaka konpainiaren «*Zazpi Aldiz Elur*» ikusgarriaren programazioa. Bernardo Atxagaren testu baten arabera, Mikel Laboa omentzen duen ikusgarria (Angeluko Quintaou antzokia – 2015eko martxoaren 26an).

Bidean diren beste proiektu batzu : Pier-Paull Berzaitz-en obren orkestrazioa, Joël Merah-ren eskutik (Baiona-Kostaldeko orkestra/EKE/Eszena Nazionala). Sorkuntza hori 2017ko lehen hiruhilekorako aurreikusia da.

## ▣ Hestivoc festibala Pauen

2015eko agorrilaren 20tik 23ra : Hegoaldeko kulturen eta musiken topaketa. Bi dantza edo musika konpainia programatuak izan dira : « Neo Kotilun » ikusgarria – Bardozeko Lagunak konpainia (2015eko agorrilaren 22an) eta Begiz-Begi taldea (2015eko agorrilaren 23an).

## ▣ Bordeleko Eskual Etxea

Ekintza ezberdinak sostengatuak izan dira EKE-ren eta Bordeleko Eskual Etxearen arteko partaidetza hitzarmenaren kariatara, horien artean Ondarearen egunak.

### 5.3.3. | Mugaz gaineko Kultura lankidetzaren garapena

#### ▣ Donostia Kultura - « Donostia Iparraldea » partaidetza hitzarmena 2015/2016/2017

2010az geroz lotzen dituen mugaz gaineko hitzarmenaren kariatara, Euskal kultur erakundeak eta Donostia Kulturak (Donostiako Udaleko kultura zerbitzuak) ipar Euskal Herriko eta Donostiako euskal kultura eskaintzaren ekoizpena eta hedapena garatzen jarraitu nahi dute, beren lankidetzaren artean 2017a arte luzatuz.

Helburu horren lortzeko, ezinbestekoa da bakoitzak sorkuntza eta arte bizidunen hedapena bere lurraldean laguntzea.

Artisten eta beren proiektuen zirkulazioa gauzatuko da beren proposamenak Donostiako kultura zentroetako eta EKEren partaide erregularrak diren ipar Euskal Herriko egituretako programazioetan sartuz.

## ▣ Egonaldi partekatuak

Musikarien egonaldi partekatuak Donostiako Intxaurrendoko kultur etxean eta Biarritzeko Atabal aretoan, bitartekaritza ekintza batzuekin Ziburuko Larzabal kolegioko, Baionako Etxepare lizeoko eta Donostiako Lauaizeta kolegioko ikasleei buruz.

### - **Napoka Iria bikotearen egonaldia (Errenteria)**

Intxaurrendoko kultur etxea : martxoaren 16tik 18ra

Atabal : martxoaren 19 eta 20an

### - **Manu Matthys / Nahia Zubeldia (Ziburu) bikotearen egonaldia**

Atabal : martxoaren 23tik 25ra

Intxaurrendoko kultur etxea : martxoaren 26 eta 27an

## ▣ Donostia 2016

2015ean, bi partaidetza proiektu landuak izan dira “Donostia 2016, Europako kultur hiriburua” fundazioarekin :

- 2016an « Soka » multimedia erakusketa ezartzea eta euskal dantzaren inguruko topaketa bereziak antolatzea (Gipuzkoako Foru Aldundiarekin - Koldo Mitxelena kulturunea) ;

- KIMU proiektu deialdiaren abiatzea euskarazko haur ikusgarrien garapenerako (Donostia Kultur-en partaidetzarekin) – ikus “Proiektu egituratzaileak” kapitulua)

## ▣ « Iparraldea bertan » – Koldo Mitxelena Kulturunea - Donostia

Kontzertuak eta bideo emanaldiak 2015eko martxoaren 4, 11, 18 eta 25ean.

«*Xalbador*» filmaren proiektzioa Eneko Dorronsoro egilearen presentziarekin ; Aire ahizpak, Zeze (musika elektronikoak), eta Erramun Martikorena-ren kontzertuak

### « Txorieri » kontzertuaren koprodukzioa

« Txorieri » sorkuntza François Rossé-k hari, flauta eta piano orkestrarentzat egin konposaketan oinarritzen da. Piano-jole alsaziarra Olivier Messiaen-en ikaslea izana da eta pieza andana bat idatzi ditu mota guzietako orkestrentzat.

Mugaz gaineko sorkuntza honek Mixel Etxekopar eta François Rossé biltzen ditu Miguel Zeberio-k zuzentzen duen Tolosako Et Incarnatus hari talde famatuarekin batera.

Kontzertua Gotainen iragan da 2015eko martxoaren 27an, « Xiru » festibalaren kariatara, eta Hondarribian 2015eko maiatzaren 8an.

## ▣ Durangoko Azoka 2016 – 50. edizioa

Gerediaga elkartearen eta Euskal kultur erakundearen arteko partaidetzari esker, Ipar Euskal Herriko editoreen ekoizpenak agerian emanak dira Durangoko azokan.

Orain duela 9 urte abiatu dinamikari segida eman diote aurten ere Gerediagak eta EKE-k.

Horren ondorioz, Agorila eta ZTK disketxeak, Gatuzain, Ikas eta Maiatz argitaletxeak, Iparraldeko Ikastolak eta Kanaldude web telebista azokan izan dira Iparraldeari dedikatua zen espazioan (Goienkale 22 – 34 - *Oharra: Elkar-eko Iparraldeko adarra Elkar argitaletxearen mahai ofizialean ordezkaturia izan da*). Aurten gainera partaide berriek bat egingen dute ekimenarekin : Zortziko argitaletxeak, Moï Moï ekoizpen labelak, Hordago arte galeriak eta Saroia ekoizpen labelak.

Bestalde, bigarren aldikoz, Euskal kultur erakundeak bere standa ukan du Goienkale 27-28 helbidean eta paradaz baliatu da "*SOKA, euskal dantzaren urratsetan*" erakusketa ibiltariaren aurkezteko.

Egin ohi den bezala liburu batzuen aurkezpen publikoak burutu dira azoka denboran. Iparraldeko idazleak eta artistak ere ez dira falta izan.

### Iparraldeko argitaletxeen berritasunak

Urtero, azokan aurkeztuak diren berritasunen artean gutti gora behera %10a Iparraldeko ekoizpenak dira: 40 bat berritasun baino gehiago aurkitzen dira azokan urtero. 2014an, lehen aldikoz, 50 berritasunen kopurua gainditu zen. Azpimarra dezakegu aurten ere proposamen anitza izan dela Iparraldetik. Ekoizpen kulturala bere osotasunean aurkitu ahal izan da: produktu "klasikoak" diren liburu, diska eta DVD-z gain, proposamen hibrido eta originalak aurkeztuak izan dira baita ere (liburu-disko edo liburu-dvd, afitxak, ikas material pedagogikoa, egutegiak...). Orotara 350 berritasun izan dira 2015ean azokan eta hauen artean 50 Iparraldetik.

### 2015eko hitzorduak

AHOTSENEA – Sortzaileen plaza

Abenduaren 4an, ostiralez

12:00: Idazle aurkezpena | Agurtzane Andueza "*Esku aldunaren gakoa*" (Maiatz, 2015)

Abenduaren 6an, igandez

11:40: Kontzertua | Maddi Oihenart eta SokaHots Orkestra "*Doi*" (Reseda, 2015)

15:00: Kontzertua | Polygorn "*Polygorn*" (Moï Moï, 2015)

15:40: Kontzertua | Begiz Begi "*Joan ihes egin baino lehen*" (Elkar, 2015)

17:00: Idazle aurkezpena | Itxaro Borda "*Ultimes Déchets*" (Maiatz, 2015)

Abenduaren 7an, astelehenez

19:00: Idazle aurkezpena | Pierre Mestrot "*Oroit hadi*" (Maiatz, 2015)

Abenduaren 8an, asteartez

11:00 : Idazle aurkezpena | Xabi Soubelet "*Elektroxok*" (Maiatz, 2015)

11:30: Idazle aurkezpena | Joseba Aurkenerena "*Kaskarin baten kontakizunak*" (Maiatz, 2015)

12:00: Idazle aurkezpena | Jean Louis Davant "*Bidean kantilotsez*" (Maiatz, 2015)

13:00: Idazle aurkezpena | Maiatz aldizkaria (Maiatz, 2015)

17:00 : Kontzertua | Jean Michel Bedaxagar "*Belatxa*" (Elkar, 2015)

## ARETO NAGUSIA – Hitzaren plaza

Abenduaren 4an, ostiralez

17:00: Idazle aurkezpena | Michel Oronos *“Deklinabide Baigorri”* (Zortziko, 2015)

Abenduaren 5ean, larunbatez

10:30: Idazle aurkezpena | Eñaut Etxamendi *“Euskera-erderak”* (Maiatz, 2015)

Abenduaren 6an, igandez

15:30: IRUDIMENA lehiaketaren sari ematea (EKE – Azkue fundazioa)

Abenduaren 8an, asteartez:

17:00: Idazle aurkezpena | Patri Urkizu *“1914-1918 Lekukoak”* (Maiatz, 2015)

11:30: Idazle aurkezpena | Gabi Mouesca *“Lepo-ondo gogor”* (Zortziko, 2015)

## IRUDIENEA – Ikus-entzunezkoen plaza

Abenduaren 5ean, larunbatez

14:00: *“SOKA, euskal dantzaren urratsetan”* erakusketaren film laburrak

*“Zergatik dantzatzen duzu?”* - Joana Asurmendi (Ateka films , 2015) | *“Jalgi”* - Eki Pagoaga (Aldudarrak Bideo, 2015) | *“Dantza flokak”*- BideoGrafik (2015) | *“Margo dantza”* - Oskar Alegria (2015)

## PLATERUENA – Kontzertu handien plaza (Kafe antzokia)

Abenduaren 4an, ostiralez

3:00 - 5:00: DJ saioa | Jupiter Jon, Sacco, Anari, Irazoki & lagunak, Audience, Nire eta Bidehutseko beste zenbait piztia + Moï Moï Kolektibo DJ saioa

Abenduaren 5ean, larunbatez

14:00: Kontzertua | Lumi (Nahia Zubeldia eta Manu Matthys) (Moï Moï, 2015)

## Santa Maria Elizpea

Abenduaren 5ean, larunbatez

12:00 : Dantza emanaldia : Bilaka kolektiboa *“Leihotik”*

Abenduaren 7an, astelehenez

BPDA-k eta EKE-k antolatu liburuzainen eguna

## ▣ “Ikimilikiliklik” erakusketa

Euskal Kultur Erakundeak parte hartu du era garaikide batean Joxean Artze poeta eta musikari handiaren bizi artistikoa kondatzen duen erakusketa honen ekoizpenean.

Donostiako San Telmo museoak errezebitu du erakusketa 2015eko azaroaren 27tik 2016ko otsailaren 14a arte.

Euskal Kultur Erakundeak proposaturik, Biarritzeko hiriak hartuko du bere mediatekan, 2016ko martxoaren 5etik lepora. Hainbat ekintza antolatuak izanen dira erakusketaren inguruan.

## ▣ Euskal Antzerkiaren DONOSTIA SARIA

Pantxoa ETCHEGOIN, Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria Sari horren erabakitzeko epaimahaikide da, lau urte hauetan.

- ✓ 2015ean, 13 antzerki obra ikusi ditu :
- ✓ Urtarrila 22/24 : Barealdi Magikoa
- ✓ Otsaila 21-22 : Erdibana
- ✓ Martxoa 7-8 : Gau arabiarra
- ✓ Maiatza 16 : Arkimedesen Printzipioa
- ✓ Ekaina 13-14 : Jokoz kanpo
- ✓ Ekaina 19-20 : Maitasunaren ostean, maitasuna
- ✓ Ekaina 23-27 : Muxua
- ✓ Abuztua 13-15 : Datorren urtean hobeto
- ✓ Iraila 10-13: Kreditua
- ✓ Urria 16-17 : Zergatik, Jamil ?
- ✓ Azaroa 26-29 : Etxekoak
- ✓ Abendua 12-13 : Eskutitzak
- ✓ Abendua 26-27 : Pepe Artola (1864-1929)

### 5.3.4 |Euskal kulturaren integrazioa mundu ekonomikoan

Euskal kultur erakundeak ahaleginak segituko ditu lotura iraunkorrak sortzeko ekonomia munduarekin eta zubiak eraikitzeko artisten eta enpresetako publikoen artean.

Culture/kultura emaitza fondoa

- EKEk eta Akitania Hegoaldeko Eszena Nazionalak antolatu kultura ekitaldietan, topaketa batzu antolatuak izan dira partaide ekonomikoekin, bi egituren aktibitateen aurkezteko eta partaideak gomitatzeke.
- « Bidaia soinudun bat euskal kantuaren bitartez » mintzaldia 2015eko ekainaren 24an, Pantxoa Etchegoin-ek eta Philippe de Ezcurra-k (akordeoia) aurkezturik, « Dassault Aviation » gunean ;
- « Olentzero » erakusketaren ezartzea “Dassault Aviation” gunean (2015eko abenduan)

CCAS – kultura turismoa

- 2015eko udan, euskal kulturarekin zerikusia zuten animazio eta tailer ezberdinak proposatuak izan dira : euskal joko tradizionalak, euskararen eta euskal kulturaren historia, Donibane / Ziburuko portuaren bisita gidatua, musika tresnen ezagutza, etab.
- « Bidaia soinudun bat euskal kantuaren bitartez » mintzaldia, Pantxoa Etchegoin-en emanik – Hendaiaiko CCAS zentroan, 2015eko agorriaren 6an.

## 5.4 | Elkartekideei banatu dirulaguntzak

### ● XIRU festibala eta “Txorieri” sorkuntza

#### Abotia elkarte

Programazioari laguntza : martxoaren 27an Pierre Vissler, Mixel Etxekopar eta Juantxo Zeberio, 28an « Txorieri » sorkuntza eta 29an Xiberoots eta Gathübi (Iruña).

### « Txorieri » sorkuntza – Gotaine Iribarne - 2015eko martxoaren 28a

#### Abotia elkarte

« Txorieri » sorkuntza François Rossé-ren konposaketa bat da sokazko orkestra, xirula eta pianorako. Mugazgaindiko sorkuntza horrek Et Incarnatus sokazko taldea (Tolosa) Mixel Etxekopar, François Rossé eta René Martinez biltzen ditu, Miguel Zeberio kudeaturik. Egitasmoak Tolosako hiriaren eta Akitania Euskadi fondoaren sostengua ukan du ere bai.

### ● Marco Giordano artistaren egonaldia Urepelen

#### Adur elkarte

Adur euskara elkarteak Marco Giordano zizelkari italiarra jinarazi du Aldudeko ibarrera, 2015eko udan. Xedea zen, egonaldi horren kariatara, artearen eta euskal kulturaren tokia galdezketatzea mendi xokoko bailara horretan. Artistak bertako materiala baliatu du Urepeleko kasko batean bere obra egiteko.

### ● Korrika

#### AEK elkarte

Korrika-kari, « Zelda 09.27 » ikusgarria, Biarritzen martxoaren 14an.

### ● Literatur eta poesia ekitaldiak Hendaian

#### Akelarre elkarte

- XI. Literatur mintzaldia  
Maiatzaren 23a, larunbata : topaketa Juan Kruz Igerabide idazlearekin Hendaiaiko Antoine Abadia aretoan « Zangoztraba » » liburuaren inguruan.
- VI. Poesia emanaldia  
Urtarrilaren 24an, larunbata : Pako Aristi eta Itziar Gomez-ekin. Hendaiaiko Mediatekan.
- VI. Irakurraldi publikoa  
Maiatzaren 27an, larunbata : Iñaki Zabaleta Urkiolaren « 110.streeteko geltokia » liburuaren irakurraldi maratoia



● **26. Txontxongilo egunak Hendaian, azaroaren 17tik 22ra**

**Akelarre elkarte**

Ikusgarriak : *Hala Bazan* - Rosa Martinez taldea (eskolendako emanaldiak gibelatua 2016ko martxoaren 7 eta 8ra); *Galtza Gorriak* - Txontxongilo taldea (eskolendako emanaldiak gibelatua 2016ko martxoaren 9, 10 eta 11ra); *Lost Love* - Alas Negras konpainia; *Basoko Ipuin ttipiak* - *El tenderete taldea*; *Ongi etorri Olentzero* - Toni La Sal taldea.

Erakusketa azaroaren 17tik 28ra Mendi Zolan gunean « Iglen Ixuraldaketa » (bisita gidatuak ere antolatuak izan dira)

● « **Errobi kantatuz** »

**Aldudarrak batasuna**

“Errobi taldea kantatuz” ekitaldiaren sostengatzea : kantarien prestaketa, errepertorioaren biltzea eta kontzertuaren bideratzea entsaioen bitartez (kontzertuak 2016ko urriaren 28 eta 29an).

● « **Mom’Expo** »

**Allez les mômes elkarte**

**Euskal artisten programatzea “Mom’Expo” azoka kari.**

Baionan (Lauga gela) 2015eko martxoaren 21 eta 22an. Kiribil konpainiaren “Biribil” haurrendako musika emanaldiaren 4 aurkezpenen programazioa. Josiane Aguerre eta Philippe Albor artistekin.

● « **Argi bila** »

**Anaigazteak elkarte**

Laguntza Olentzero-ri buruzko karrika ikusgarri honen sortzeko

Partehartzaileak : Donibane Lohizuneko musika eskola, Begiraleak, Temps daniel, Zortizburu, Oihal berri, Eusal brass band. Zuzendaritza artistikoa : Anaigazteak eta Christian Larralde.

Abenduaren 19an, Donibane Lohizunen aurkeztua.

● **Argazkiaren Biltzarraren 23. edizioaren antolaketa, irailan, Donibane Garazin**

**Argian elkarte**

Aurtengo gaia « Euskal Pilota». Sarien banaketa irailaren 27an.

Biltzarraren 1. saria : Ricardo Galdeano Latorre (Lizorra - Nafarroa)

Biltzarraren 2. saria : Maura Oderay Black (Baiona - Lapurdi)

Biltzarraren 3. saria : Aitor Arenaza-Berruete (Lizorra - Nafarroa)

Donibane Garaziko ibarraren saria 2015 : Patxi Gonzalez Janariz, Zizur Nagusia (Nafarroa)

Publikoaren 1. saria : Michel Lamagnère, Tarnose.

Publikoaren 2. saria : Xantxo Ernaga, Arrosa

Publikoaren 3. saria : Claude Iribarne, Uharte Garazi

Argazki ibilaldiaren saria : Régina Jaureguiberry, Ezterenzubi

Argazki ibilaldiaren saria : 15 urtez pekoen saila : Louise Duplaceau, Donibane Garazi

## ● Laguntza « Aterpean » artista egonaldiaren 8. edizioari

### Atelier elkarte

Bosgarren urtea da bi konpainia hautatuak direla « Aterpean » programarentzat. Haien sorkuntzak « Dantza Hirian » festibalaren kariatara aurkeztuak izan dira.

**Organik (Getxo) « Irrintzi »** – Natalia Monge, Helena Golab eta Laurentx Etxemendi (musika). Irrintzinari buruzko ikerketa eta berrinterpretatze lana

#### Sorkuntza egonaldia

Uztailaren 27tik 31ra. Dantzagunea (Erreterria)

Abuztuaren 21etik 28ra. CCN Malandain Ballet (Biarritz)

#### Sorkuntza prozesua ezagutu

Uztailaren 30a. Dantzagunea (Erreterria) > Entsaio publikoa (publiko guziak)

Abuztuaren 27a. Gare du Midi (Biarritz) > Entsaio publikoa (publiko guziak)

#### Emanaldiak

Irailaren 20a. Donostia – “Dantza Hirian” festibala (Lehena)

Irailaren 26a. Baiona – “Dantza Hirian” festibala

- Organik Konpainiaren «Irrintzi » dantza sorkuntzaren aurkezpena Baionako Bernat Etxeparen lizeoan, 2015eko irailaren 21ean. « Irrintzi », euskal artzainen oihu emblematicoari buruzko dantza emanaldi bat da. Interpretatzaileak : Natalia Monge, Helena Golab eta Laurentx Etxemendi musikaria. Emanaldiaren ondotik, solasaldi topaketa bat iragan da dantzari eta ikasleen artean.

**Rouge Elea (Hendaye) « Bleu »** - Corine Cela (jatorrizko ideia, idazlea) , Jean-Philippe Leremboire (begirada artistikoa eta koreografikoa), Ander Fernandez (musika/giro soinu-duna)

*Bleu* pieza *Ceci est la couleur de mes rêves* forma luze baten lehen zati laburra da. Ikusgarriak dantzatzearen garrantzia galdezkatzen du heriotzari buruz.

#### Sorkuntza egonaldia

Uztailaren 13tik 17ra. Mendi Zolan (Hendaia)

Abuztuaren 24tik 28ra. Egiako Kultura Etxea (Donostia)

#### Sorkuntza prozesua ezagutu

Uztailaren 18a. Mendi Zolan > Entsaio publikoa (publiko guziak)

Abuztuaren 28a. Egiako Kultur Etxea > Entsaio publikoa (publiko guziak)

#### Emanaldia

Irailaren 20a. Hondarribia (Lehena)

Irailaren 26a. Donibane Lohizune

Irailaren 26a. Baiona

### ● **Laguntza arte ibilbide baten antolakuntzari, Harana erreka latsagietan**

#### **Ba sarea elkartea**

Obra artistiko batzuen instalazioa 2015eko ekainaren 20tik irailaren 30era Heleta, Lekorne, Hazparne eta Bastidako latsagietan, ondoko artistekin :

- Caro Worboys // Heletako latsagia – Herauritz auzoa  
Oihal eta paperezko obra serigrafiatuak « Uroitzapen »
- Uxue Arbelbide // Lekorneko latsagia – Lekorne auzoa  
Grafismoa lanak « Xurxulak »
- Johan Praud // Hazparenko latsagia – Labiry auzoa  
Zurazko obrak « Zubixkak »
- Oskar Alegria // Bastidako latsagia – Eiherraren karrika  
Soinu instalazioa (euskara, frantsesa, gaskoina) « Latsarriak »

2015eko apiriletik goiti, mediazio ekintzak eskoletan, tailerrak eta topaketak herrietako biztanleekin, latsagien inguruko gogoeta talde baten antolaketa (« Apesa Innovation » taldeko ikertzaile batzuekin partaidetzan), ekintzak Hazparneko Pierre Espil mediatekan.

### ● **Udako erakusketa Ezpeletako gazteluan**

#### **Begi argi elkartea**

Uztailaren 17tik agorrilaren 14era.

Gaia : « Ametsa ».

### ● **III. “BERINAK / Les Vitrines” arte garaikide ibilbideak – 2015eko maiatzaren 30etik ekainaren 15a arte – Senpere**

#### **Berinak elkartea**

Festibalak Julio Le Parc artista handiari harrera berezia eskaini dio. Gonzalo Etxebarria, Maia eta Baptiste Ibar edo Bertrand Dezoteux bezalako tokiko artista horien obrak ikusgai izan dira ere herriko hainbat tokitan. Maialen Lujanbio, Jon Maia, Xumai Murua eta Eneritz Zabaleta bertsulariak, bai eta Ttotelka taldea ekitaldiaren parte hartzaileak izan dira ere.

### ● **Bertsularitzaren alde**

#### **Bertsularien Lagunak elkartea**

Euskal kultur erakundeak Bertsularien Lagunak elkartea laguntzen du bertsularitza garatzen eta zabaltzen:

- elkarreak antolatutako saioak eta beste tokiko elkarrekin antolatutako bertsu-saioak lagunduz (bertsulariak ordaintzeko dirulaguntza eskainiz eta sonorizazioa segurtatuz),
- elkarreak antolatzen dituen lehiaketak, sariak eta xapelketak sustatuz.

Azken sail huntan azpimarratzekoa den ekitaldia :

Hernandorena saria, Baigorri 2015eko urriaren 17an. Ekitaldi huntan parte hartu dute Estatu Batuetako Martin Goikoetxea eta Johnny Kurutxet bertsulariak bai eta Frantxua Bidaurreta San Frantziskoko euskal etxeko lehendakari-ohiak. EKEk sei egunez gomiatuak zituen Euskal Herriko bertsugintza modernoaren hobeki ezagutzera.

Bertsu-saioen garapena bultzatzeko eta EKEk ekartzen duen dirulaguntzari buruz komunikatzeko, Bertsularien Lagunak elkarteak eta EKEk gutun bat idatzi dute, besteak beste EKEko elkartekideei igorria izan dena.

2015ean, "Eleketa" ahozko bilketa sailan, Terexa Lekumberri bertsularitza munduko eragileak filmatzen hasi da. "XX. mendeko bigarren partean ezagutu den kultur mugimendu berritzailea eta hunen garapenaren kontestua" gai orokorraren inguruan, Beñat Soulé-k, Jean-Louis Harignordoquy-k, Michel Aire-k, Txomin Ezponda-k eta Jesus Arzallus-ek beren lekukotasunak eskaini dizkigute.

Bestalde Euskal kultur erakundeak segitu du beti ikerketa saila laguntzen, bideo kamera bat prestatuz, saioak grabatuak izan daitezzen.

● « Bi harriz lau xori »  
**Biarriz Culture elkartea**

**Laguntza Bi Harriz Lau Xori festibalari – 2015eko martxoaren 17tik 22ra**

Laguntza Fermin Muguruza eta Harkaitz Canoren « Black is beltza » komiki proiektuari, Dejabu Panpin Laborategi taldearen « Arrastoak » antzezlari eta Dantzaz konpainiaren « Txoriak » dantza emanaldiari zuzendua izan da.

● **Eskola publiko elebidunen arteko kultura egunen antolaketa**  
**Biga bai elkartea**

2015eko apirilaren 14an Azkainen, 2015eko ekainaren 4an Donapaleun, bi eskoletako ikasleek hainbat tailerretan parte hartu dute, euskal kulturaren ondarea deskubritzeko. Egun horiek euskaraz iragan dira.

● **Musikaren besta Urdiñarben maiatzaren 22tik 24ra**  
**Bil Xokua elkartea**

Maiatzaren 22an : *Bertsu Kauter* gaualdia bertsulari desberdinekin

Maiatzaren 23an : Mintzaldia "Kantuaren lekua, egungo gizartean" gaiaren inguruan

Maiatzaren 24an : Kontzertua Tapia ta Leturia taldearekin, Karrika kurri Dju Dju eta Aitzindariak taldeekin.

● **Euskal filmen hedapena Iparraldean**  
**Cinéma et cultures elkartea**

✘ **Laguntza Pablo Maloren « Lasa eta Zabala » filmaren banaketari – 2015eko martxotik ekainera**  
Filma 2015eko martxoaren 11tik (estrenaldia) ekainaren 6ra banatu da Baiona, Biarriz, Hazparne, Hendaia, Donibane Garazi, Donapaleu, Maule, Donibane Lohitzune eta Saliseko zine geletan. Orotara 1788 ikusle bildu dira eskainitako 59 emanaldietan.

✘ **Laguntza Asier Altunaren « Amama » filmaren banaketari – 2015eko abenduan**  
Laguntza filmaren promozio lanarentzat eta filmegilearen presentzian antolatuak izan diren saioentzat Urruñan (01/13), Biarritzen eta Donibane Lohitzunen (01/14), Baionan (01/15), Donapaleun (02/01), Maulen (02/02) eta Donibane Garazin (02/03). Aldibereko hedapena 2016ko urtarrilaren 20tik goiti lurraldeko zine geletan.

## ● « Ai zer haizea » haur sorkuntza

### Éclats konpania

« Ai zer haizea » ikuskizuna Chris Martineau-k eta Stéphane Guignard-ek sortu « Si le Sirocco s'y croit » antzezlanaren berridazketa da, Juan Kruz Igerabide-k egina. Gasteizen (ekainak 22-27) eta Hego Lapurdiko Hirigunean (irailak 28 – urriak 2) egindako egonaldiei esker euskarazko bertsoia oholtzari egokitu da.

## ● 20. Euskal Herria Zuzenean festibala

### Euskal Herria Zuzenean elkarte

Lekornen iragan da, 2015eko uztailaren 3tik 5era

Laguntza Berri Txarrak, Joseba Lenoir, Skakeitan eta Rouge Elea taldeen programazioarentzat, bai eta igandeko kantaldiarentzat ere (Maialen Errotabehere, Aguxtin Alkat, Anje Duhalde, Petti).

## ● Euskal kultura Hazparnen

### Eihartzea elkarte

Laguntza 2015eko kultura programazioari : musika klasikoaren gaualdia 2015eko ekainaren 5ean, besteak beste Joseba B.Lenoir & Gakobeltzak (Bera) artistekin ; Arteguna festibala agorrilaren 16an, Aire Ahizpak & Elgar Oinka taldeekin ; Euskal antzerkiaren astea, abenduaren 4, 5 eta 6an, Lauka teatroa, Huts Teatroa eta 5'inalak taldeekin ; Zinegin festibala azaroaren 19tik 22ra : formakuntza tailerrak, topaketak euskal zinegileekin.

## ● Sorkuntza koreografikoa

### Elirale elkarte

- Laguntza sorkuntza desmartzarentzat
- Euskarazko mediazioa
- Elirale elkarteak ekoiztu emanaldien hedapena Departamendutik kanpo

### Laguntza « Ninika» ikusgarriaren hedapenarentzat Avignoneko « OFF » festibalean.

3 dantzari parte harrarazten dituen ikusgarri hau haur gazteei zuzendua da. Golovine antzokian aurkeztua izan da, 2015eko uztailaren 4etik 26era.

## ● « Belzenia » sorkuntza

### Eskuz Esku elkarte

Dantza, txotxongiloak eta musika uztartzen dituen sorkuntza, esklabogoaren gaiaren inguruan. Egitasmo honen abiapundua Kepa Arburua Olaizolaren *Belzenia* liburua izan da : esklabo beltzen presondegi baten deskubritzea Ziburun eta esklabo beltzen tratamendua Euskal Herrian aipatzen dituelarik. 3 artista badira taula gainean : Brice Mingouolo (dantza), Battitt Halsouet (txotxongiloa) eta Xano (musika). Sorkuntza egonaldiak Hendaian eta Donazaharren.

Sorkuntzaren aurkezpena : 2015eko bukaeran.

● **14. “Antzerkiaren astea”-ren antolakuntza, Urruñan.**

**Euskal Haziak elkarte**

Ikasturtean zehar, eskola katoliko elebiduneko gela batzuek antzerkia landu dute euskaraz Frantxua Cousteaurekin (Bordaxuri taldea). 2015eko ekainaren 1tik 5erat, Urruñako Itsasmendi zine gelan, 13 ikastetxeetako 632 ikaslek 19 antzerki aurkeztu dituzte egunean zehar, beste ikasleen aitzinean. Ekainaren 2an, arratsarekin, Urruñako San Frantses Xabierreko haurrak helduen aitzinean aritu dira, bai eta Ziburuko San Mixelekoak ere ekainaren 4an. Gainera, ekainaren 5ean, Josiane Aguerre-Valencia-k eta Philippe Abor-ek *Biribil* ikusgarria eman dute.

● **Kultur emankizuna**

**Euskal Irratiak elkarte**

Laguntza “Kultur alea” eta “Kantuz kantu” irrati emankizunentzat

● **Kultura hitzordu baten antolaketa Aiziritzen**

**Euskal kultur elkarte**

Azaroaren 13an, kantaldi bat iragan da artista hauekin : Joseph Etchebarne & Jean Urruspil, Izarrak, Alain Larragneguy & Mat Sterle, Guy Saldubehere & Peio Chauvin, Maylis & Miren Etchart, Gaëlle Larroudé & Henri Miremont, Amikuze Kantuz.

● **Diasporari buruzko gualdia Uztaritzen**

**Eusko Ikaskuntza elkarte**

Euskal diasporari buruzko gualdia gai honen inguruan : *Euskal emigrazioa : oroitzapena baino gehiago ?*

Mintzalariak : Argitxu Camus Etchecopar, Joseba Etxarri, Marie Pourquié, Monika Legarto, Robert Acheritogaray, Laura Igantzi (Euskal Artzainak Ameriketean)

Gaualdiaren kudeatzailea : Andde Irosbehere

Tokia : Uztaritzeko Lapurdi gela

Eguna : 2015eko urriaren 16an, ortziralez, arratseko 7etan.

Ipar Ameriketako bi bertsularirekin

● **Etiopikoak festibala – Baiona – 2015eko apirilaren 22tik 26ra**

**Ezkandrai elkarte**

Laguntza Etiopikoak festibalaren 6. edizioari, batez ere artista hauen programatzeko : Ruper Ordorika eta Mugalari taldea + Beñat Achiary eta Larrosa Salbaiak taldea Baionako Antzokian apirilaren 25ean, Bidaia taldea apirilaren 26an Bokalen, eta Maddi Oihenart, Julen Achiary, Jean-Christian Hirigoyen musikari eta kantariak festibala garaian.

● **« Errobiko festibala » Itsasun, uztailaren 23tik 26ra**

**Ezkandrai elkarte**

Artista hauen parte hartzearekin : Maddi Oihenart, Suaparta, Beñat Achiary.

Sorkuntza artistikoari buruzko mintzaldia Paxkal Indo, Camel Zekri, Hau eta Juan Gorostidi hizlariekin.

● « Neo Kotilun » dantza sorkuntza

**Foyer de Bardos elkarte**

7 Kotilun gorri berri aurkezten dituen karrikako emanaldia. 7 dantzariak 2 txalapartariz eta DJ batez lagundurik ari dira. Ikusgarriaren aurkezpen egunak : ostailaren 8a Donibane Lohizunen, maiatzaren 2an Erangon (Xarnegu Eguna), agorrilaren 11n Kanbon eta agorrilaren 22an Pauen (Hestiv'Oc festibala).

● 36. Arte garaikide erakusketaren antolaketa

**Foyer de Bardos elkarte**

Erakusketak ekainaren 13tik uztailaren 12ra iraun du Salha jauregia gelan. Gaia : "Hemengo ikuspuntuak". Argazki erakusketa : Abel Bourgeois, Gabrielle Duplantier, Caro Worboys, Luc Medrinal.

● Jazz'in Collège 2015 « Ez dok amairu»

**Foyer Socio Educatif elkarte**

Baigorriko Jean Pujo eta Donibane Garaziko La Citadelle kolegioetako ikasleek topaketa batean parte hartu dute Buuzbu taldearekin. « Ez dok amairu » mugimenduko lau kantutik abiatuz, helburua erreperitorio berri baten ikastea izan da.

Kontzertuak Donibane-Garazin iragan dira ekainaren 19an eta 20an.

● Garzarrak dantza taldearen 60 urteen ospakizunak

**Garzarrak elkarte**

Martxoaren 14an : Sorkuntzen gaualdia: *Loba* ikusgarria, Erregetxopitak dantzarien emanaldia eta *IxtanT* dantza emanaldia (Buuzbu musika taldearekin eta Garzarrakeko dantzariarekin)

Maiatzaren 22an : Lekuko musikarien gaualdia : Bilau, Mattin eta Gorka, Xendarineko ahizpak

Ekainaren 6an : 60 urteen besta egunak : Desfilea, dantza ikusgarriak, Itsasuko "Kli-k" a, dantzaldia Kiki Bordatxorekin.

● Getaria dantza taldearen bidaia

**Getaria elkarte**

Getaria dantza taldearen bidaia Boliviara Oruroko ihauterietan parte hartzeko, otsailaren 13tik martxoaren 1era. Kultur trukaketak dantzaren inguruan. Hurrei zuzendu tailer batzuen antolaketa Hermanos Mayores elkartearekin.

● Kantaldia Altzürükün

**Goiz Argi elkarte**

*Gaü izartsü* kantaldia Altzürükükö elizan, uztailaren 10ean, musika klasikoa eta ohiko musika uztartuz

● Hatsaren Poesia 2015

**Hatsa elkarte**

- *Olerkiaren egunaren* 17. edizioaren antolaketa apirilaren 12an. "Hatsaren Poesia 2015" liburuaren aurkezpena (17. alea) Senperen Larraldean. Olerki idazleen eta olerkizaleen arteko topaketak : tailerrak, idazleen olerki irakurketa, "Hatsaren olerki bustiak 2015" bideoaren aurkezpena.

- « Maite ditugun Olerkariak »: Jose luis Otamendi idazlea entzungai izan da abuztuaren 14an, Senpere Larraldean *Kapital publikoa* aurkezteko. Abuztu osoan zehar, hainbat hitzordu antolatu dira olerkiaren inguruan (Eguzki sartze baten besta, tailerrak, irakurketak...).

● **Argazki erakusketa Baionan**

**Hatza elkarte**

Marc van Loey-ren *Regards* erakusketa , apirilaren 1etik 20ra Baionako Levant liburutegian,  
Yannick Bourcier-en *Surréaliste* erakusketa apirilaren 1etik 20ra Baionako « Rue en pente »  
liburutegian,  
Michel Suhubiette-ren *Ouvertes ? Fermées ?* erakusketa apirilaren 1etik 20ra Baionako Mediatekan.

● **“Hartzaro” festibalaren antolaketa 2015eko otsailaren 11tik 17ra**

**Herri soinu elkarte**

Karrikako sorkuntzak (Tutak eta Zirt Zart)

Kontzertuak (Muda, Musikantuz, The Rusty Ravens, Goliath, Nina Coyote eta Chico Tornado, Hamaika kolore fest, Kiki Bordatxo)

Mintzaldiak (Kondairak eta leiendak, Claude Labat eta Xan Errotabehere-rekin ; Omenaldia Padre Hilario Olazaran de Estellari : Fernando Tamayo, Jean Garin eta Arantxa Lannes, Baztango dantzariak Uztaritzeko Txistulariak eta Gaiteroak, Laurent Harignordoquy

Dantza emanaldiak (Dantzaz kia, Kompany Beritzaren *Baküna Show* ikusgarria, Izartxoren *Buruz Behera*, Etorkizuna konpainiaren *Leihotik*, ...)

Zan Pantzar-en auzia, Maia dantza, animaleen dantza, Zirtzilak, Kaskarrotak, Txilindron lehiaketa...

● **« Herri Uzta » festibala, urriaren 8tik 11ra Uztaritzen**

**Herri Soinu elkarte**

Dantza eta musika sorkuntzen musika festibala Errobi herri elkargoaren lurraldean 2015eko urriaren 8tik 11ra

Urriaren 8an : Festibalaren estreinaldia Aizkoa abesbatzarekin eta mintzaldia, « Iruñako udaletxeko konpartsa eta gaiteroen partaidetzaren 50 urteurrenak dira » izeneko ikusgarria Javier Lacunza-rekin, bideo emanaldia Pierre Haira-ren « Gaita Iparraldean »-ekin.

Urriaren 9an : Maurice Ravel kontserbatorioan, gaitaren aurkezpena eta katedra irakurraldia.

Arratsean, Luhusoko Harri Xuri gelan : *Gaita Luze* emanaldia eta Bilaka konpainiaren *Zaharrak berri / Abbadi / Negua* dantza emanaldia

Urriaren 10ean, Ezpeletan : *Gaita Eguna*. Egun osoan zehar dantza emanaldiak eta ekitaldiak. Iparraldeko Gaiteroak elkarte eta Nafarroako (Tudela, Artaxoa, Ablitas, Iruña, Elizondo), Gipuzkoako (Hernani, Oiartzun, Elgoibar, Arrasate), Arabako (Gasteiz), Bizkaiko (Bilbo) eta Iparraldeko (Baigorri, Donapaleu, Uztaritze, Sara, Txingudi, Basusarri, Baiona...) gaiteroen partaidetzarekin.

Basusarrin, Italiako dantzen inguruko dantza tailerra Agnès Perez-en eskutik.

Arratsean, Luhusoko Harri Xuri gelan : *Gaita Luze* emanaldia eta Bilaka konpainiaren dantza emanaldia (*Zaharrak berri / Abbadi / Negua*)

Urriaren 11n, Arrangoitzen : Mutxikoaren Eguna, Hats Berri elkartearekin antolatua.

Mutxikoak eta musika animazioa Ezpeletako txaranga, Gaita Luze eta Kiki Bordaren eskutik. Emanaldiak : *Herrikoa* Zarena Zarelako konpainiaren eskutik eta Tolosako Udaberri dantza taldea.



● **“Hartza Altzoa” festibalaren antolaketa 2015eko martxoaren 13tik 15era – Errobi Herri Elkargoan**

**Herri Soinu elkarte**

Heziketa Artistiko eta Kulturalari zuzendutako hitzordua, lurraldeko eskolak elkartzen dituen: Larresoroko San Matin eskola, Uztaritzeko Louis Dassance Ikastola, Haltsuko Maurice Harriet eskola, Jatsuko Pierre Dibarrat eskola publikoa. Leinuruak dantza emanaldia, P. Fishet eta P. Albor, artista gazteen emanaldia, Lapurdiko Haur kantu Txapelketa, lurraldeko ihauteri ohidurei lotutako tailer eta topaketa artistikoak.

● **« La chasse aux légendes Volume 1 Le Pays Basque » egitasmoari laguntza**

**I can Fly elkarte**

Jokin Irungaray-k grabatu dituen leiendak smartphone eta tabletendako « Laminapp » aplikazioan aurkitzen dira, Euskal Herriko ondare kulturala (berriz) deskubritzeko aukera emanez.

● **Iparraldeko Dantzarien Biltzarra-ren egitasmo berriaren sostengatzea**

**Iparraldeko dantzarien biltzarra elkarte**

- Dantza ziklo batzuen obratzea, Ravel kontserbatorioarekin ;
- Borondate oneko dantza erakasleen formakuntza kurtsoak ;
- Goi mailako dantza formakuntza sareen alhan ezartzea ;
- Dantza talde amaturrek bultzatu egitasmo amankomunen (bizpahiru dantza taldeen artean adibidez) sostengatzea : 2015ean, Maritzuli eta Leinua taldeak lagunduak izan dira ;
- Laguntza dantza ikusgarrien hedapenerako.

● **« Emazu eskua » egitasmoa**

**Biga Bai elkarte**

Proiektu honen helburua euskararen erabilpena garatzea da, mugaz gaindiko eskoletako ikasleen arteko kultura trukaketen bidez. Egitasmoa Konpostelako bideen inguruan garatu den ikusgarri parte hartzaile batekin bukatu da.

● **« Iparra hegoa » aste kulturala martxoaren 7tik 15era Seguran (Gipuzkoa) eta Pausun (Lapurdi)**

**Iparra Hegoa elkarte**

Gaia : « Biharko Euskal Herria : nora goaz ? »

Programazioa : Lapurdiko Pausu (Urruña) eta Gipuzkoako Segura herrien arteko harremanak bultzatzen dituen aste kulturala : mahain inguruak (Nortasuna, Lurraldetasuna, ...), bertsu poteoa eta afaria (Ametz Arzallus eta Unai Iturriagarekin), Kuxkuxtu txaranga, sukaldaritza tailer eta lehiaketak, haurrendako emanaldiak, dantzaldia Iñazki taldearekin. Kontzertuak.

Aste kulturala aintzin, zombait hitzordu ere antolatuak izan dira, hala nola Gérard Ihidoy eta Peio Zabaltzaren kantaldia (otsailaren 14an), *Hazparneko Anderea* antzezlan (otsailaren 20an) eta *Xalbador izana eta izena* dokumentalaren aurkezpena otsailaren 25ean.

● **Musika Baxe Nafarroan**

**Iparralai elkarte**

Garazi-Baigorriko musikarien elgarretaratzeak eta trukaketak.

● **Itsas ondarea**

**Itsas begia elkarte**

Zokoako gotorlekuaren historiari buruzko erakusketa elebidunaren ekoizpena laguntzea.

● **Katalina de Erauso pastoral**

**Katalina pastoral elkarte**

*Katalina de Erauso* pastoralaren antolaketaren lehen fasea.

● **“Irri “ egitasmoa – Klowner interbentzioak zahar etxeetan**

**Kilikolo Zirko elkarte**

Laguntza klowner bikote batek Hiriburuko « Harriola », Hazparneko « Larrazkena » eta Donibane Garaziko « Toki Eder » zahar etxeetan egin hamabost bisitentzat.

● **Laguntza « Baiu » sorkuntzaren hedapenari**

**Kiribil elkarte**

Laguntza ikusgarriaren hedapenarentzat : 2015ean Maulen emana izan da. Artistak : Paxkal Indo – Amaia Hennebutte.

● **« Biribil » sorkuntza**

**Kiribil elkarte**

Haurrei zuzendutako sorkuntza, borobilaren tematikaren inguruan, bi bozetan, kantuak, musika eta esku jokoak uztartuz. Ikusgarria Ikas-ek argitaratu *Biribil Haur kantuak* obran oinarritzen da. Iparraldean hedatu da. Artistak : Philippe Albor/Josiane Aguerre Valencia

● **Akordeoi eguna**

**Kornelio musika eskola**

Topaketa Azkaingo musika eskolako ikasleekin. Jose Maria Lopez eta Gérard Luc eskusoinularien kontzertua. Michel Dhers-en erakusketa. Kontzertuak eta mintzaldiak.

● **« Organik Orkestra » sorkuntza**

**Lagunarte elkarte**

Jérémie Ternoy-k eta Kristof Hiriart-ek hamabi musikari bildu dituzte « Organik Orkestra » musika taldea sortzeko. Bastidan, Nexon, Boulazac eta Lausanne hirietan egindako artista egonaldietan, musika herrikoa eta musika idatzia nahasten dituen emanaldia landu dute. Kontzertuak Boulazac-eko PNAC Agoran (maiatzaren 13an), Lausanne-eko Centre d’animation de la Cité zentroan (agorrilaren 14an), Jazz Tourcoing Festibalean (urriaren 18an) eta Bastidako Inessa de Gaxen gelan (abenduaren 18an).

● « Klownen ondoan izate » - Atarratzeko St Antoine zahar etxea eta Mauleko Erietxea  
**Les Moissons Clowns elkartea**

Les Moissons Clowns elkarteko clown bikote batek bost bisita egin ditu euskaraz Atarratzeko "St Antoine EHPAD SSR" zahar etxean eta beste zortzi bisita Mauleko Erietxe Zentroan, martxo eta abendua artean.

● **Euskal kantu tailerrak**  
**Les Voix de la terre elkartea**

Tailerrak Kanbon iragan dira, uztailaren 11tik 18ra, Arraga elkartearen partaidetzarekin.

● « Euskaraz irakur » irakurketa tailerrak  
**Libreplume elkartea**

Urte osoan zehar, euskarazko irakurketa tailerren antolakuntza, buraso eta hurrei zuzenduak. Lehenesten den publikoa : buraso ez euskaradunak baina ez bakarrik.

Publikoa : haur gazteak (4 urtetik berakoak), publiko gaztea (4-10 urte artekoak), burasoak, hurrekin ari diren profesionalak (animatzaileak, erakasleak)

« Loaldi irakurraldiak » : 8 hitzordu, 53 haur eta 43 heldu

« Hitz jaleen tailerrak » : 3 hitzordu, 27 haur, 2 heldu eta Uda Lekuko animatzaileak

« Nini irakurlariak » : 4 hitzordu, 53 haur eta 11 heldu.

● **Laguntza euskal artisten programazioari « Le Petit Bouquinville » gertakariaren kariatara**  
**Libreplume elkartea**

« Petit Bouquinville » ekitaldiak gazteendako literaturan poesiaren presentzia argitan emateko xedea du. Laguntza euskal artisten programazioari : topaketa Amaia Hennebutte idazlearekin eta tailerrak *Altzalili* eta *Hiru Otso* liburuen inguruan.

Martxoaren 10 eta 11n Baionan.

● **Patxi Zubizarreta-ren idazle egonaldia Nekatoenean**  
**Littoral basque elkartea**

"Nekatoenea" euskal idazle egonaldiaren bosgarren edizioaren kariatara, Patxi Zubizarreta Ordiziarra hautatua izan da. Idazlea 2015eko urrian egon da Hendaiako etxe famatuan gazteei zuzenduriko eleberri baten idazteko.

● **Laguntza euskarazko literatura sorkuntzari**  
**Maiatz elkartea**

31. solasaldien antolaketa Baionako Euskal Museoa. Maiatzaren 12 eta 13an :

Maiatzaren 12an :

Aurkezpenak : Maiatz 60 aldizkaria, Joseba Aurkenerena-ren mintzaldia *Kaskarin baten kontakizunak*, *Gerla Haundia nola aipa* gaiaren inguruan, Emilio Lopez Adanek kudeaturik.

- Patri Urkizuren *1914-1918 lekukoak* libururaren aurkezpena. Bertsu eta kantak Jean Louis Lakak emanik eta gutun batzuen irakurketa Menane Oxandabaratzekin

- Mahain-inguru bat besteak beste Patri Urkizu eta Eneko Bidegain idazleekin  
Maiatzaren 13an :

*Aurkezpenak* : Marikita Tanburin-en *Bi saiakera emazteen izenean* eta Eric Dicharry-ren *After Banksy*  
Mahain ingurua, *Artea eta literatura* gaiaren inguruan, Lucien Etxezaharretak kudeaturik. Parte hartzaileak : Agurtzane Andueza, Eric Dicharry, Ttittika Rekalt, Zigor eta Josu Jimenez Maia.

*Zure hatsaren ez galtzeko* poesia ikusgarria, Itxaro Borda eta Itsaso Gutierrez-ekin.

Bestalde Maiatz argitaletxeak liburu azoka ezberdinetan parte hartu du (Sara, Durango, Ortese ...)

### ● « Ametsezko baratzean ibilaldia » egitasmoa

#### **Matière à penser elkarte**

Obra artistiko baten instalazioa azaroaren 14tik 21era, Hazparnen, Eihartzearen erakusketa gelan, Caro Worboys eta Beatrice D. artisten eskutik. Azaroaren 14an, performantza ikusgarrigintza munduko artistekin : Xan Errotabehere (kondalaria), Maddi Zubeldia (kantaria) eta Xany & Kristo (argi sortzaileak).

### ● Laguntza euskal artisten programazioarentzat *Mintzalasai* festibalaren barnean, eta “Soka” erakusketaren inguruko mediazio ekintzak

#### **Mintzalasai elkarte**

Biarritzen, irailaren 21etik 27ra, euskal artisten programazioa aste osoan: musika elektronikoa tailerrak Boom Tchak-ekin, Zaldainen *Ozeanoaren konkista*, euskal umoreari dedikatu gaurdia Le Royal zinegelan (*Zamalzain* eta *Txetxe ala hil* filmen aurkezpena). Marion aintziran antolatu familien egunarentzat : Rouge Elearen *Zuek* emanaldia, ZoZongo txaranga, Garaztarrak dantza taldearen *InstanT*, kontzertuak : Xutik, Buzbuu, ...

*Soka* erakusketaren inguruko mediazio ekintzak irailaren 26an : bisita gidatua euskaraz, dohainik eta bertsutan Sustrai Colina-rekin. Bisitaren ondotik Biarritzeko dantza taldeen emanaldia Amalabak, Oldarra eta Pinpirinak dantza taldeekin.

### ● 6. Baleapop festibala

#### **Moï Moï elkarte**

#### **Festibala Donibane Lohizunen iragan da, agorrilaren 5etik 9ra**

Laguntza agorrilaren 6,7 eta 9an Herriko Dukontenia parkean aritu diren Joseba B. Lenoir Gang, Odei, The Lookers eta Moï Moï Band taldeen programatzeko.

### ● « Haizebegi » musikaren munduak film festibala Baionan

#### **Munduko Musiken Etxea elkarte**

Urriaren 14tik 17ra : kontzertuak, elgarretaratze artistikoak Euskal Museoan Pantxoa Etchegoin, Beñat Achiary, Talia Bachir Loopuyt, Serge Noël-Rainavo eta Françoise Degeorgesekin, « Euskelantiqua » kontzertua Euskal Barrokensemble taldearen eskutik.

### ● « Kima V »

#### **Musikari Donibane Lohizun elkarte**

Ekainaren 14an, *Kima V* izeneko elgarretaratzea 300 txistularirekin, Donibane Lohizuneko natura antzokian

● « **Amaraina** » sorkuntza

**Oreka Zirko elkarte**

Egonaldia urritik abendura - Baiona

*Amaraina* sorkuntza ipuin ekologiko bat da haur ttipiei zuzendua dena. Sorkuntza lanak Baionako Garage des Arts gunean iragan dira. Aurkezpena 2016ko aurreikusia da. Parte hartzaileak : Mélanie Viñolo, Doriane Billard, Battitte Halsouet, Fanni Berard eta Isacoutou.

● **Baxe-Nabarreko orkestra ganbara egitasmoa**

**Orgue en Baigorri elkarte**

20 bat musika ikasleren egonaldia Baigorriin, beren erakasleekin : Vincent Planès, Arranoa musika laukotea, Marina Beheretche, Aude Fade eta Emmanuelle Bacquet.

« Vivaldi – 4 euskal urtaroak » kontzertua Baigorriko elizan, uztailaren 29an, musikari hauen inguruan : Stéphane Rougier, Arranoa laukotea, Michel Etchecopar, Patrick Larralde, Paxkalin Chabagno, Paxkal Indo.

● **Sarako 32. Euskal idazleen biltzarra**

**Sarako turismo bulegoa elkarte**

Apirilaren 6an iragan da, Sarako polikiroldegian.

Euskalzaindiaren liburuen aurkezpena, idazle aurkezpenak...

● **Euskal antzerkiaren hedapena Ibilki dispositiboaren kari**

**Ote lore elkarte**

Laguntza Ote Lore elkarteak herriko gelan aurkeztu emanaldientzat : Dejabu Panpin Laborategia konpainiaren *Arrastoak* ikusgarria otsailaren 6an eta Huts Teatroaren *Etxekoak* sorkuntza azaroaren 7an.

● **“Pastore Lore” gertakariaren 12. edizioa**

**Pastore Lore elkarte**

Egun osoan zehar, urriaren 11n Azkainen, euskal kultura eta artzaingo mozkinen koloreak dakartzkien Larrungo Lorea ohoratzen da. Lurraldeko ondarearen aberastasuna argitan ematen duen gertakaria. Euskal dantza emanaldiak, joaldunen desfileak, Menditarrak taldearen kantaldia.

● « **Jokoz kanpo** »

**Pinpulka elkarte**

Ezpeletan, ekainaren 6an.

Laguntza Etorkizuna konpainiaren *Leihotik* ikusgarria bi aldiz emateko karrikako arteei dedikatua den egun horretan.

● **Euskal artisten kontzertuak Baionan**

**Quartier Latin elkarte**

Euskal artisten kontzertuak antolatutak izan dira Baionako Luna Negra kafe antzokian :

- maiatzaren 8 eta 9an: Etchegoyhen Ahizpak

- azaroaren 27an : Philippe de Ezcurra (eskusoinua), Anjel Unzu (gitarra) eta Kike Arza (kontrabaxua).

● « Ronde » ikusgarriaren hedapena

**Rouge Elea elkarte**

Zirkoa, dantza, musika, objektuak eta irudia uztartzen dituen sorkuntza hau 7 urtetik gorako publikoari zuzendua da. Ikusgarria urriaren 13 eta 14an aurkeztu da Bruselako MCCA Molembeek gunean.

● « Zuek » sorkuntza

**Rouge Elea elkarte**

Familia memoriaren inguruko sorkuntza hau, kontzertuaren, zinearen eta objektu antzerkiaren artean kokatzen dena. Hendaiaiko *Mai du théâtre* festibalean aurkeztua izan da Ander Fernandez eta Corine Cella antzezleekin.

● Olentzero Park edizioa

**Seaska elkarte**

Baionako Lauga gelan antolatua, abenduaren 22 eta 23an.

Laguntza Biribil konpainiaren musika emanaldiarentzat eta Txoborro magoaren interbentzioarentzat, Olentzeroren inguruko ekitaldi horren kariatara.

● Trikitixa-ren inguruko trukaketak

**Soinu Ttiki elkarte**

**Euskaldun, Bretoindar eta Irlandes trikitilarien arteko trukaketak Ezpeletan:** trikitilarien elgarretaratzea, trukaketak trikitixa eskolekin eta animazioak.

● Kantaldia Heletan

**Soropika elkarte**

Caroline Phillips eta Mixel Ducau-ren "Bidaian" taldearen kontzertua agorrilaren 20an, Heletan.

● Euskal kultura Heletan

**Traboules elkarte**

- ✘ **Euskal artisten hedapena Heletako Itsasoan** : Christophe Mourguy eta Mikel Urdangarin otsailaren 13an, eta Javier Muguruza/Xabier San Sebastian urte bukaeran.
- ✘ **Poteo atipikoaren antolaketa Heletan** irailaren 25etik 26ra Heletan - Irailaren 25ean : « Anari »-ren kontzertua, irailaren 26an, euskal dantzak eta mutxikoak lekuko soinulariekin, irailaren 27an : bideo tailerra.

● Imigrazioari buruzko bideo dokumental baten ekoizpena

**Trait d'union elkarte**

Elgarrizketatu 4 pertsonaiekin. Erreportaia Cimade-kin eta Ordiziako imigrazio elkarte batekin. Maia Berasategiren parte hartzearekin, etorkinen integrazioaz.

### ● Laguntza « Bestea » dantza ikusgarriaren sortzeko

#### Traversée elkarte

Zuzendaritza : Matxalen Bilbao – Dantzariak : Johanna Etcheverry/Matxalen Bilbao - Argiak & teknika : David Alcorta – Musika : Marc Cano

Lehen ikuskizuna : 2015eko urriaren 24 & 25ean – Fundación Bilbao

### ● Euskal zine hamabostaldia

#### Uda Leku elkarte

Irakaskuntzako hiru saretako ikasleentzat :

Filmak : *Pim eta Pom* (4 - 6 urte) eta *Bram Barrabas* (7 - 11 urte) urtarrilean aurkeztuak izan dira, zinegela hauetan : Mauleko « Maule Baitha », Donibane-Garaziko « Le Vauban », Donapaleuko « Saint-Louis », Hazparneko « Haritz Barne », Baionako « L'Atalante », Donibane Lohizuneko « Le Select », Urruñako « Itsas mendi », Hendaiaiko « Les Variétés, Biarritzeko « Le Royal » eta Kanboko « L'Aiglon ».

### ● Mintzaldi zikloa Uztaritzen

#### Ur Begi elkarte

- otsailaren 20an : *Mehategiak Euskal Herrian*
- otsailaren 27an : *Gurs-eko zentroa* Eric Mailharancin eta Jean-Claude Larronde-rekin
- martxoaren 8an : *Irulegiko mahasti eremua* Damy Vigier-en eskutik
- apirilaren 3an : *Mutxikoak* Patxi Perez-ekin

### ● Erakusketak Baionan

#### Ur Taldea elkarte

Hainbat euskal erakusketa instalatuak izan dira Baionan.

### ● Usopop # 6

#### Usopop elkarte

Usopop festibalaren seigarren edizioa Sarako Lizarrietako lepoan antolatua izan da, artista hauen parte hartzearekin : Petti (Bera), Belako (Mungia) musika taldeak eta Etorrizuna Iparraldeko dantza kolektiboa.

### ● Xarnegu Eguna festibala

#### Xarnegu eguna elkarte

Xarnegu Eguna apirilaren 29tik maiatzaren 3ra iragan da. Besteak beste, Koldo Amestoy eta Serge Mauhourat kondalariak programatuak izan dira. Bardozoko dantzariak aldiz, *Neokotilun* ikusgarria aurkeztu dute.

● **Laguntza *Otsail ostegunak* mintzaldi sailaren antolaketari otsailaren Setik 26ra, eta *Asmoa eta Jakintza* gogoeta dinamikari Donapaleun :**

**Zabalik elkarteak**

- Otsailaren 5ean : *Ekonomiaren bertokiratzea eta lurraldearen gaintasuna*. Hizlariak : Xebas Christy eta Patxi Bergara.
- Otsailaren 12an : *Eritasuna jatekotik? eta jatekotik senga baginte*. Hizlaria : Pello Zubiria.
- Otsailaren 19an : *Zuzen kantatzea libreki kantatzea balitz?*. Hizlariak : Marie Hirigoyen eta Pantxix Bidart.
- Otsailaren 26an : film proiektzioak, zinegile eta arkeologoekin.

● **« Pierra Lhande » pastorala**

**Zalgiguri elkarteak**

Bi emanaldi izan dira Zalgizen uztailaren 26an eta abuztuaren 2an. Annick Coulon Apphathiak idatzitako pastoralak Pierra Lhande-ren bizia eman du ohoretan : apeza, idazlea, Euskaltzaina, besteak beste hiztegi baten egilea gaur egun erreferentzia bat gelditzen dena.

● **« Hitza Hats » ekitaldiaren 3. edizioa**

**Zazpi seme alabak elkarteak**

Hazpainen irailaren 25 eta 26an.

- Irailaren 25a, ostirala : Kantaldi gaualdia Misionesten kaperan : Jean Michel Bedaxagar, Maddi Oihenart eta gomitak
- Irailaren 26a, larunbata : Karrikako animazioak : Ziganteak, Skandalue Elektrotzaranga, joaldunak, jokoak eta lehiaketak, bertsu bazkaria, dantza Itsasi Azpeitiako dantza taldearekin eta mutxikoak, kontzertu gaualdia (Anestesia, Kevin Jager, Furyo, Coldus...).

● **« Suaparta » sorkuntza**

**ZTK elkarteak**

« Suaparta » karrikako sorkuntza proiektu bat da, sua eta txalaparta nahasten dituena. Txalaparta zuzenean joz, su efektu eta suziri batzu botatzen dira, musikarekin bat, sinkronizazio osoan. Emanaldiak Euskal Herria Zuzenean festibalean uztailaren 3an eta Errobiko Festibalean uztailaren 25ean.

● **« Intxaurmendi kantuz »**

**Zubia elkarteak**

Lekuinen, uztailaren 11n.

Auzo arteko euskal joko desafia Gaia elkarteak antolaturik.

Afaria Nat & Watson taldeak animaturik.

**Diskografiari buruzko dirulaguntzak :**

- « Izarrak » eta « Hiru soinu » (Agorila) ;
- « BBAX » (ZTK)

\*\*\*\*



## **Euskal kultura munduan**

### **Kaliforniako bi bertsulari Euskal Herrian**

Euskal Kultur Erakundeak gomitaturik, Kaliforniako Martin Goicoechea eta Johnny Curutchet bertsulariak Euskal Herrian gaindi ibili dira 2015eko urriaren 12tik 17ra. Frantxua Bidaurreta San Frantziskoko Euskal Etxeko kide eta lehendakari-ohiak lagundurik, hemengo bertsulariekin kurutzatzeko, eskoletan ibiltzeko eta oro har bertsularitzaren inguruan egiten diren ekintzen hobeki ezagutzeko parada ukan dute.

Prentsak orokorrean aste osoan arras ongi estali du gertakaria.

Partaideak : Bertsozale Elkartea, Mintzola eta Bertsularien Lagunak.

#### **Egitaraua :**

- Urriaren 12an : Pantxoia Etchegoin, Euskal Kultur Erakundeko zuzendariaren ongi etorria, eta solasaldia, iparraldeko bertsularitzaz, Daniel Landart eta Beñat Soulé-rekin.
- Urriaren 13an : Larzabaleko Manex Erdozaintzi Etxart kolegioan - Bertsu-eskolan parte hartzea (Bertsularien Lagunekin).
- Gauean : "Larralde" etxean, Senperen : "*Bertsulari*" filmaren aurkezpena, Amets Arzallus eta Julio Soto bertsulariekin.
- Urriaren 14an : Mintzolan, Villabonan Bertsozale Elkartearen proiektuaren aurkezpena eta XDZren azalpena, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Iñaki Murua, Aritz Zerain eta Karlos Aizpurua bertsulariekin.
- Diasporako eta Euskal Herriko bertsularien saioa : Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Martin Goikoetxea, Johnny Curutchet. Gai-jartzailea : Karlos Aizpurua. Antolatzaileak : Euskal Kultur Erakundea eta Mintzola Fundazioa.
- Urriaren 15ean : Baionako Euskal Erakustokiaren bisita - topaketak Baionako Etxepare lizeoko ikasleekin.
- Urriaren 16an : Uztaritzeko Lapurdi gelan : *Euskal emigrazioa : oroitzapena baino gehiago?* eztabaida filmatua eta Kanaldude-ren webgunean zuzenean eskainia – EKE-k eta Eusko Ikaskuntzak antolaturik. Bertsulariek parte hartu dute.
- Urriaren 17an : *Hernandorena saria* Baigorriin, Bixentainean.